


83

4 euro • 2003ko ABENDUA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi


ELKARRIZKETA: MEL AINSOW ETA
GORDON L. PORTER • EKARPENA:
ESKOLAK ONGI ERAKUSTEN AL DU
KOLOREAK IKUSTEN? • IZURAKO
OZTIBARRE IKASTOLA • BERRIAK



GAIA

Lanbide Heziketaren osasuna


Ahuleziak eta indarguneak



GARMENDIA

ONDARRUKO PISTOLERO
BATEN ISTORIOAK...

KIRMEN URIBE & MIKEL VALVERDE



Birundan
Sail berria

Jokin Mitxelena eta Pello Añorga, idazlea eta marrazkigilea, buruz buru sail berri honetan. Heriotza da liburu baten gaia, eta bakoitzak bere burua onartzea bestearena.





gaia

LANBIDE HEZIKETAREN OSASUNA

Aurten Donostian Martutuneko lanbide eskola itxi dute, eta datorren urtean Oreretako Zabalbide itxiko da. Horretarako zein arrazoi dauden eta lanbide eskolen egoera nolakoa den aztertu dira gai honetan.



elkarrizketa

MEL AINSCOW ETA GORDON L. PORTER

Berritzeguneek antolatutako Guztiontzako eskola biltzarrean eskola berrerratzailerak mintzatu ziren.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

LANBIDE HEZIKETAREN OSASUNA

Ahuleziak eta indarguneak

14 elkarrizketa

MEL AINSCOW ETA GORDON L. PORTER

24 ekarpena

Eskolak ongi erakusten al du koloreak ikusten?

Txema Preciado

30 kultura eta hizkuntza aniztasuna

Didaktika integratzailearen ekarpenak

Itziar Aramaio

34 nazioartea

Hezkuntza eztabaida estatu frantsesean

35 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Izurako Oztibarre ikastola

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz.

Erredakzioa: Joxe Mari Auztendi, Ixlar Elizagiren. Erredakzio batzordea: Mikel Estomba, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Agalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erricmb, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L.

Azaleko irudia: Hikhasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2003-XI-24. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du harpide zaitez!

30 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

30 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



editoriala

abendua

Hezkuntza, etorkizuna prestatzeko eztabaida guztien erdigunean



Hezkuntzako eztabaiden aurrean, euskal ikuspegitik kriterio propioak eta komunak izatea litzateke egokiena.

Herri, nazio, estatu eta gainontzeko egituraketetan hezkuntzak garrantzi handia duela ezagutzea ona da une honetan gertatzen ari diren eztabidak eta indar jarrerak ulertu ahal izateko.

Frantziar estatuan datozen 15 urtearako hezkuntza sistemaren garapen ildoak eztabaidatzen ari dira. Hain egitura zentralista duen estatua Europako beharretara egokitzen joateko dezentralizazio mota bat planteatzen ari da. Hori bai, nazioa eta estatua kontzeptu berean sartuz, eta horren ondorioz frantsesa estatuko hizkuntza ofizial bartzat mantenduz.

Dena den, hona hemen eztabaidan jarritako puntu batzuk:

- Zein dira eskola errepublikarren balioak eta zer egin gizarteak onar/beregana ditzan?

- Zein izan beharko luke eskolaren eginkizunak Europan eta datozen hamarkadetarako?

- Zein berdintasunetara jo beharko luke eskolak?

- Hezkuntzaren esparruan, nola definitu eta banatu estatuaren eta lurraldetako kolektiboen arteko ardurak eta rolak?

- Beharrezkoa al da ikastetxeei autonomia gehiago ematea eta horrekin batera ebaluazioa egitea? ...

Espainiar estatuan, bestalde, denei eragingo dien dekretu eta lege organiko bidez botereak bere ikuspegi politikoa ezarri nahi du. Ildo horretatik hor ditugu Humanitateen dekretua, Kalitate Legea, Lanbide Heziketaren Legea eta abar.

Aurreko neurrien aurrean, Nafarroan hartzen ari diren erabakiak ditugu alde batetik, eta EAEn hartu nahiko lirakeen eta hartzera behartuta daudenen arteko aldeak ezintasuna sortzen du, bestetik.

Hori guztia aztertuta, eta euskal ikuspegitik begiratuta, Euskal Herriak Bere Eskolak proposamen bat egin du. Besteren artean zera dio: "Euskal Herriak, munduko gainontzeko herriek

bezala, inguruak ezarritako erronkei erantzuteko era berezia izan du. Erantzun propio hauek kultur ondare bihurtzen joan dira, beste herriekiko hartumane bidez aberastutako ondarea, hain zuzen ere. Hezkuntza izan da kultur ondare hori belaunaldiz belaunaldi transmititu eta eraberritzeko akuilua. Egun, globalizazioaren eta uniformizazioaren aurrean, kultur aniztasunaren balioa aldarrikatzen den honetan, bestelako mundu baten eraikuntzarako geure ekarpena egin nahi dugu..."

Beste une batean hala dio: "...Euskal Herriari eragiten dioten hezkuntza erabakiak Euskal Herrian bertan hartu behar dira, euskaldunon arteko eztabaida libre eta demokratikoaren bidez. Gugeu baikara hobekien dakigunak zer nolako hezkuntza beharrak ditugun..."

Hori guztia hausnartuta, bakoitzak atera ditzala bere ondorioak, eta behin ondorioetara iritsita, ez al litzateke osasungarria horiekin koherentziaz jokatzea?

kronika

Seaskak lortu zuen azkenik Frantziako Hezkuntza Ministeritzarekin bilkura egitea. Adostutako eguna atzeratzen jardun zuen Ministeritzak, eta azkenik azaroaren 12an bildu ziren, Parisen. Gai nagusiak bi ziren: Seaskak lehen mailarako 93. irakasle postua izatea eta Seaskaren murgiltze ereduaren legezko koadroa adostea. Ordu t'erdiko bilera izan zen. Harrera ona egin zieten Seaskako ordezkariari (Filgie Claveri lehendakariari eta Pantxika Ibarburu zuzendariari), eta tonu egokian gauzatu zen bilera. Ministeritzako ordezkariak jarrera ona agertu omen zuten. Baina hitzak haizeak eraman ditu. Frantziako Hezkuntza Ministeritzak bilkuran hitz eman zuen handik 8 egunetara bere erantzuna jakinaraziko ziola Seaskari. Harrezkero ez baietzik eta ez ezetzik, ezer ez dio erantzun Seaskari. Hezkuntza Ministeritzak arazoari heltzen ez dion artean, Seaskak mobilizazioekin jarraituko duela erabaki du.



Partzuergoko haur eskolak atek ireki dituzte

Abenduko lehen egunotan atek zabalduko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan Partzuergoaren bidez sortutako haur eskola askok. 0-3 urteko 1.000 haur hartzeko beste eskola irekiko dituzte urtebetean *Haurreskolak* Partzuergoko udalek. Eta urtero 1.000 haur gehiagori erantzuteko baldintzak jarri beharko ditu Partzuergoak. Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak esan du datorren urtetik aurrera EAEn jaiotako haurren erdiek izango dutela lekua haur eskolatan, sare publikoko eta pribatuko eskaintzari esker.

Azaroan sinatu zuten *Haurreskolak* protokoloa Eusko Jaurlaritzak eta Eudelek. Protokoloaren bidez, haur eskolak kudeatzeko zein ardura izango

dituen Jaurlaritzak eta zein Eudelek hitzartu dute. Hemendik aurrera beste aukerarik ez dagoen kasuetan udalek ipiniko dute eskola egiteko lekua, eta udalak arduratuko dira eskolak zaintzeaz, hornitzeaz eta garbitzeaz. Jaurlaritzak oinarrizko ekipamenduak ordainduko ditu. Partzuergoak, berriz, langileen soldatak jarriko ditu. *Haurreskolak* protokoloaren bidez, bestetik, baldintza berdinetan geldituko dira Partzuergoaren bidez sortutako haur eskolak eta EAEn 38 udalerritan asfaltatik martxan dauden haur eskolak (azken urteetan Jaurlaritzaren diru laguntzak jaso dituztenak).

Gurasoen patrikari zenbateko zuloa egingo dion 0-3 urteko haurra Partzuergoak sortutako eskolara bidaltzeak, horixe da askoren galdera. Gehienera jota, hilero 180 euro ordaindu beharko zaizkio eskolari haur bakoitzagatik. Kuota ezberdinak daude, haurrak eskolan pasatzen duten orduen arabera. Zentro horiek irekita egongo dira egunean 11 orduz. Baina haur bakoitzak, gehienera jota, egunean 8 ordu pasa ditzake eskolan. Hala, egunean 4 ordu edo gutxiago pasatzen dituzten haurrek 135 euro ordaindu beharko dituzte, eta 4 orduetik gora ematen dutenek 180 euro. Familiei bekak eta diru laguntzak ere emango zaizkie.

Euskaldun guztiok politikoki nafarrak gara

Tomas Urzainki



Ikasle Abertzaleak- en 15. urteurrena

Azaroaren 15ean Ikasle Eguna ospatu zuten Alegian. Bazen festarako motibo berezirik gainera: aurten 15 urte betetzen baititu Ikasle Abertzaleak (IA) erakundeak. 1988an sortu zen IA Euskal Herri mailako antolakuntza gisa, ikasleek dituzten beharrei erantzuteko eta ikasleen eskubideen alde egiteko. Bi urterik behin ikasleriaren biltzar nazionala antolatzen du IAK, Euskal Herriko ikasle guztiei zabaldua. Biltzar horretan zehazten dira hurrengo bi urteetarako norabideak. Alex Marañon IAKo kideak hala esaten zuen Berria egunkarian: *"Gure bitarteko guztiak jartzen ditugu jendeak parte hartzeko. Azkenean, Euskal Herriko ikasleriak pentsatzen duena islatzen dugu"*.

Ikasle Abertzaleak-ek 15 urte betetzen dituen honetan, urrats berri bat

etorri da gainera: Nazioarteko Ikasleen Elkarte onartu berri dutela IA erakundea. Horrek badu bere garrantzia, batez ere Nazioarteko Ikasleen Elkarte NBEren ardurapean dagoen erakundea delako. Halaxe azpimarratzen zuen Alex Marañonek: *"NBEren ardurapean dagoen elkarte batek Euskal Herria nazio modura hartzen duen lehen aldia da. Hori jarri genuen baldintza, eta onartua izan da"*.

Orain hamabost urte IAn lan egin zutenek ez omen zuten inolaz ere antzematen mugimendu honek gaur duen irudia eta prespektiba lortuko zuenik. Garai hartan are zailagoa izango zen pentsatzea gaur web orria sortuko zutenik (www.ikasle-abertzaleak.org), eta aldizkaria ere bideratuko zutenik. Hamabost urtetan aldaketa handiak izan dira. Aurrera begira ere badute zer eginik, Alex Marañonek azaltzen duenez: *"Herri honek behar duen hezkuntza eredurantz pausoak emateko garaia da. Izan diren erasoekin, egoera jasangaitza da. Gure oinarritzko arloak direnak, euskara eta euskal kultura, kolokan daude, eta horiek indartzen joan behar dugu"*. Horregatik, Alex Marañonen esanetan, ikastetxetan euskal curriculum a ezartzeko proiektuari eta euskal unibertsitatea sortzeko proiektuari Ikasle Abertzaleak erakundeak bere ekarpena egin beharko dio.

Iruñean azaroak utzi du bere arrastoa: 2.700 sinadura aurkeztu zituzten udalean, eskatzeko Arrotxapea auzoan egiten ari diren haur eskola euskarazkoa izan dadila. Arrotxapea auzoan lehendik badira beste bi haur eskola ere, eta biek gaztelaniaz eskaintzen dituzte zerbitzuak. Iruñean denera euskarazko bi haur eskola soilik daude, biak Txantrea auzoan. Eskaera, aldiz, izugarria da: Iruñean gurasoen %64k euskarazko haur eskola nahi du bere haurarentzat. Arrotxapea auzoan kopuruak gora egiten du gainera: %71k nahi baitu haur eskola euskalduna.

Udalak oraindik ez du argitu ea Arrotxapean eraikitzen ari diren haur eskolak euskaraz ala gaztelaniaz jardungo duen. Auzoko gurasoak jada antolatu dira. 2.700 sinadura biltzeaz gain, udaleko alderdiekin bilerak egin dituzte, eta gaia Iruñeko udalbatzara eramateko asmoa dute gurasoek.

Azaroak utzi du beste aldarrikapenik ere Iruñeko karriketan. San Frantzisko eskola publikoa lekuz aldatu nahi du Nafarroako Gobernuak. Eskola Ezpeleta Jauregira eraman nahi du, teresatarren komentura. Eskolako ikasle eta gurasoak aurka daude, teresatarren komentua "arriskutsua, txikia eta legez kanpoko" delako eta aldaketak "seme-alaben heziketari kalte egiten diolako". Hala salatu zuten Iruñean egindako manifestazioan. Irakasleen klaustroak ere bere keza azaldu zuen, esanaz aldaketa horrek "ondorio pedagogiko larriak" ekarriko dituela. Irakasleen klaustroak asmoa birplanteatzeko eskatu zien Iruñeko Udalarari eta Nafarroako Gobernuari.

Lanbide Heziketaren osasuna Ahuleziak eta indarguneak





Nolako osasuna dute lanbide eskolek?

Oreretako Zabalbide lanbide eskola datorren ikasturtean itxiko da. Donostiako Martutene lanbide eskola, berriz, aurten itxi da. Elkarrengandik hurbil dauden bi eskola itxita, eta biak D ereduak. Zer gertatzen da?

Galdera horri erantzun asmoz abiatu gara Zabalbidera eta erabaki hori bultzatzen duen arrazoiak garbia dela hartu gara: ikasle falta. Baina, hori zergatik gertatzen ari da? Zergatik joan da ikasle kopurua jaisten? Hor, motibo ugari azaleratu dira.

Oro har, lanbide eskolen eta Lanbide Heziketaren beraren egoera ez da berdina eskualde batean zein bestean. Euskarazko ereduaren aldeko apustua egin duten batzuek ongi funtzionatzen dute, eta beste batzuek zailtasun gehiago dituzte. Ikasle kopuruaren jaitzierak ez die berdinean eragiten batzuei zein besteiei. Edonola ere, hainbat joera errepikatu egiten dira eta horrek kezka sortzen du batzuegan.

Bost urte dira Lanbide Heziketara erreforma iritsi eta ezarri zela. Ordura arteko ikasketak ereduak aldatu eta heziketa zikloen abiatzea ekarri zuen erreformak. Geroztik, titulazio zehatzagoak eskaintzen dira, betiere merkatuari begira; zer eskatu, hura eskaini. Horrekin enpresekiko lotura areagotu egin da eta ikasleei lan mundurako sarri erraztu egin zaie. Hori izan da Lanbide Heziketak azken urteotan eduki duen erakarpentako bat, eta horrek gizartean prestigioa irabazten lagundu dio.

Era berean, gero eta ikasle gehiago egiten dute Lanbide Heziketaren hautua. Hala ere, kontuz ibili behar da datu horrekin. Iaz ikasleen erdia heziketa zikloak egiten ari dela esan izan da, baina hori esatean erdi eta goi mailako heziketa zikloko ikasleak hartzen dira kontuan, hots, 16 eta 18 urtekoak. Beraz, ezin dira Batxilergoko datuekin konparatu, horiek 16 urtekoenak soilik direlako. Esate baterako, 2002-03 ikasturtean EAEn 34.845 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan, eta erdi mailako heziketa zikloetan 11.340. Hori erdia baino gutxiago da, %17,5, hain zuzen.

Horrek esan nahi du, nahiz eta Lanbide Heziketan gero eta ikasle gehiago aritu, oraindik ere indar handiagoa duela Batxilergoak. 2002-03 ikasturtean 34.845 ikasle zebiltzan Batxilergoan eta 1998-99an 46.384, hots, 11.539 gutxiago. Erdi mailako Lanbide Heziketan, aldiz, 2002-03an 11.340 ziren eta lau urte lehenago 10.255, alegia, 1.085 gehiago. Goi mailako Lanbide Heziketan 3.015 gutxiago zeuden 2002-03an, 21.962tik 18.945era jaitsi baitzen.

Erreformak beste aldaketa bat ere ekarri zuen: lehen 14 urterekin joaten ziren ikasleak lanbide eskoletara eta 19 urtera arte egoten ziren. Egun, 16 urterekin hasi eta 18 urterekin amaitzen dute. Horrek, noski, ikasle kopuruaren beharadun eragina izan du zentro

guztietan, jaitziera demografikoarekin batera. EAEn, esaterako, iaz baino 3.600 ikasle gutxiago dabilta Batxilergoan eta Lanbide Heziketan.

EAEn 176 lanbide eskola daude egun eta 139 heziketa ziklo daude aukeran. Eskaintza gehiena A ereduaren egiten da. Araban, esaterako, Gasteiztik kanpo ez dago ezer euskaraz, eta hiriburuan esku bateko behatzekin kontatzeko adina. Gipuzkoaren kasuan, euskarazko eskaintza soilik egiten duten zentroak 16 dira; euskaraz zein gaztelaniaz 24 eta gaztelania hutsean 25. Bizkaian A ereduak eskolak gailentzen dira, eta askogatik; 68 dira erdal ereduak, 6 euskal ereduak eta 10 eredu biak eskaintzen dituztenak.

Edozein modutan, gauza bat da eskaintza, eta bestea matrikulen arabera osatzen diren taldeak. Sarritan, A eta D ereduak eskoletan ez da jende nahikorik izaten bi talde osatzeko, eta denak bakar batean biltzen dituzte. Horrelako kasuetan, noski, A ereduak nagusitzen da gehienetan. Nafarroan Iruñeko Donapea eskolan, Altsasun, Leitza, Beran eta Elizondo dago euskaraz ikasteko aukera.

Hizkuntzaren aldetik, beraz, oraindik ahalegin gehiago egin beharra dago. Izan ere, beharago mailatan ikasleek D ereduak hautatzen baldin badute, gerora ere ikasketak euskaraz jarraitzeko aukera bermatu behar zaie.



G

Zamalbide lanbide eskola ixtera doa

Oreretako Zamalbide lanbide eskolak 25 urte beteko ditu datorren ikasturtean, baina ezin esan liteke urteurrena ospatuko denik, ateak itxi egingo baititu. Gero eta ikasle gutxiago zituela ikusirik, administrazioak datorren ikasturtean ixteko erabakia hartu zuen. Iaz 50 ikasle zeuden; 2. mailan zeuden 15ek ikasketa bukatu zituzten, eta gainontzeko 35 aurten ari dira 2. maila egiten. 1. mailarik ez da eskaini 2003-04rako. Beraz, 35 horiek izango dira Zamalbidetako azken ikasleak.

Josu Berra zuzendariak eta irakasleek ikasle kopuruaren behar kadaren arrazoiak aztertu dituzte, eta horren atzean faktore bat baino gehiago daudela ikusi dute.

Aurten Donostian Martuteneko lanbide eskola itxi dute eta datorren urtean zuena. Kasualitatea al da biak D ereduko zentroak izatea?

Dereduko eskola gehiago badaude eta ondo funtzionatzen ari dira. Donostialdean eta Oarsoaldean, ordea, euskarazko eskaintza ez da erakargarria. Euskararen aldeko inplikazioa daukagun sektore batzuk hori bultzatzen ari ginen, eta horren aldeko apustua egin genuen, baina gazteengan ez du erakargarritasunik.

Egia da administrazioaren aldetik ere ez dugula laguntza handirik eduki. Ez du ezer egin D ereduen alde. Ikastetxeoi nahi duguna egiteko esaten digute eta ez dago inolako planifikaziorik.

Dena dela, berriro diot, hori gure eskualdean gertatzen den fenomeno da, beste leku batzuetan ongi baitabilta.



Ikastetxea ixteko arrazoi bakarra hori al da?

Ez, noski, faktore bat baino gehiago daude. Lehendabizi jaitsiera demografikoa dago. 16 eta 18 urteko ikasle kopurua etengabe ari da jaisten. Memento honetan punturik baxuena 14 urteko ikasleetan dago, DBHko 3. mailan. Beraz, beste bi urtetan jaisten jarraituko du. Gero igotzen hasiko da, baina poli-ki-poliki, ez jaitsi den bezain azkar.

Lehen OHO bukatu eta Lanbide Heziketara ikasleen %25 etortzen zen, baina %25 hori 1.000 ikasle osatzen zuten, eta gaur egun 74k. Ehunekoak mantentzen dira, baina ez da gauza bera 10.000tik edo 1.000tik izan. Kopuru horiekin taldeak osatzea zaila suertatzen da.

Zailtasun hori eskola batzuetan soilik nabaritu al duzue?

Ez, baina eskola handietan ez du txikitian bezainbesteko eraginik. Bolumen handiko eskoletan talde bat gutxiago osatzen bada, ez du eraginik. Talde batekoak beste batean sar daitezke eta kito. Gure kasuan, ordea, bost ziklo genituen, erdi mailako hiru eta goi mailako pare bat; administrazioa eta elektronika ikasketakoak. Kasu horretan, ezin ditugu elektronikako ikasleak administrazioarekin nahastu, ikasketak zeharo desberdinak baitira. Iaz bostetik talde bat galdu genuen, aurten laurerekin ari gara eta laueta ere kopuru minimoekin: 11-12 ikasle.

Horri guztiari dispersioa eta eskola handien erakarpena gehitu behar zaio.

Eskola handietara joateko joera al dago, bada?

Bai, ikasleek zentro handietara joan nahi dute. Gure kasuan, Donostiako Usandizaga-Peñaflorida institutura edo Irunera jotzen dute. Donostiakoak 1.000 ikasle ditu eta hara joan nahi dute, berdina zaie zein hizkuntz eredu eskaintzen duen. Horri baino garrantzi gehiago ematen diote giroari, martxari, jendea egoteari... Hori gehiago baloratzen dute talde txikiak dituen hurbiltasuna,





arreta eta baldintzak baino.

Gizarteko fenomeno berbera gertatzen da: jendea gune komertzial handietara joaten da eta auzoetako dendak ezinean daude. Gune horietara ez doaz erosketak egitera soilik, hango giroa gaitik, jendea gaitik... ere joaten dira. Joaten ez badira, zerbait galtzen dutela dirudi. Eta eskolan ere hori sumatzen dut.

Ikasleek Batxilergoa aukeratzeak eraginik ba al du Lanbide Heziketan? Horrek kentzen al dizkio ikasleak?

Bai, noski, hori da beste faktoretako bat. Oraindik ere ikasle gehiagok egiten du Batxilergorako hautua. Bakoitzera %50 joaten direla esaten da, baina datuak ez dira errealak. Lanbide Heziketako %50 horren barruan maila ertainekoak (16 urte) eta goi mailakoak (18 urte) daude eta azken hauek unibertsitateko datuekin konparatu behar dira, ez Batxilergoekin. Adibidez, gure eskualdean Batxilergoa %75,5ak hautatu zuen iaz eta maila ertaineko heziketa zikloak %22,4k. Batxilergoko 2. mailako ikasleen artean %61 unibertsitateara pasa zen eta %39 goi mailako Lanbide Heziketara. Beraz, kontuz ibili behar dugu datuekin.

Zer gertatzen da, Lanbide Heziketak ez al du prestigiorik hartu oraindik?

Oraindik unibertsitate fenomeno dago. Orokorrean, gurasoek seme-alabek euren ikasketa mailak gaindi ditzaten nahi dute. Horrez gain, ez dituzte seme-alabak 18 urterekin lantegi batean lanean ikusten, oraindik umeak iruditzen baitzaizkie. Hori ere gizartean gertatzen ari den fenomeno bat da: orain dela urte batzuk aadin horretarako denok lanean ginen, baina gaur egun 17-18 urtekoa ez dugu lanerako ikusten.

Beste eskola batzuen egoera

Euskal Herriko hainbat lanbide eskolan ez dute bizi Zamalbideko egoera iluna. Noski, denek dituzte kezkak eta hobetzeko gauzak, baina erronka horiei aurre egiteko indarrez aurkitu ditugu.

Jaitsiera demografikoa dela eta, ikasle kopurua guztietan jaitsi da. EAEn iaz baino 3.600 ikasle gutxiago dabilta aurten Batxilergoan eta Lanbide Heziketan. **Iurretako lanbide eskolan** iaz baino 90 ikasle gutxiago dituzten aurten, baina hala ere 450 inguru dira orotara. A eta D ereduak daude aukeran, eta ikasleen erdiak baino zertxobait gehiagok euskarazko eredu aukeratu zuten du. 19 talde daude guztira, 12 euskarazkoak eta 7 gaztelaniazkoak.



Iurretako lanbide eskolak D ereduaren aldeko apustua egin zuen eta hango irakasleek borondatea eta konpromisoa erakutsi dituzte. Inguruko herrietatik ez ezik, urrutia gaitik ere joaten dira euskaraz ikasi nahi dutenak. Josu Palacios eta Julian Torres irakasleek diotenez ikasle gehienak aurreko

ikasleek D ereduari egin dituztenak dira. B ereduari ikasitako batzuk A ereduari pasatzen dira, eta beste batzuk Dra. *“Eskualde honetan B ereduari ikasitakoek euskara maila ona dute eta D ereduari jarrai dezakete. Baina Galdakao, Zornotza eta beste zenbait tokietakoek arazoak izaten dituzte eskolak euskaraz jarraitzeko. Sarritan euskaraz esandakoa gaztelaniaz errepikatu behar izaten zaie ez dutelako ulertzen”.*



Elizondoko lanbide eskolan ez da horrelakorik gertatzen. Mikel Iriarte ikasketa burua bertako ikasle izana da eta orduko giro erdalduna euskaldun bihurtu dela dio. Ikasketen %90 euskaraz ematen dute eta euren erronka ahal duten gehiena euskaraz egitea da. A+D ereduak daukate, eta eskolan 30 urte daratzen. Joxe Urroz zuzendariak dioenez eredu elebiduna hobea iruditzen zaio euskarazko eta erdarazko lerroak edukitzea baino. *“Irakasle guztiak elebidunak izatea hobea da. Erdiak euskaldunak eta beste erdiak erdaldunak*

izango balira, dena erdaldunduko lukete". Zuzendariaren eta bere taldearen jarrera garantzitsuak direla gehitzen du. "Guk euskaraz egiten badugu, erdaldunek badakite zer egin behar duten: euskara ikasi. Ni Frantziara joaten naizelarik, frantsesa ahal dudana bezala mintzatzen naiz, eta bestela isilik egoten naiz. Hemen ere bide hori da errazena eta azkarrrena euskaldundu nahi badugu".

Ikasle erdaldun gutxi daude eskolan eta denek euskaraz solas egiteko moduan dakite. Liburu gehienak gaztelaniazkoak dira, baina apunteak euskaraz ematen dituzte eta azalpenak ere bai gehienetan. "Denek dakite euskaraz egiten dugula. Eskola sortu zuten guraso erdaldunek euskaraz egitea nahi zuten, bazekitelako hori zela beraien seme-alabak integratzeko bidea. Aldiz, baserritarrek ziren gaztelaniaz egin nahi zutenak, euskara bai baitzekin eta ez baitzuten euskaraz egiteko beharrik ikusten".

Ikasle Aber-

tzaleak-eko kide Alex Marañon ezkorrago agertzen da. Euskarazko eskaintza ez dela handia dio, batez



ere ikastetxe, eskualde eta ikasketa zehatzetara mugatzen dela. "Gainera, heziketa ziklo berrienak, erakargarrienak, berritzaileenak eta lan munduari begira pisu handiena dutenak gaztelaniaz daude".

Euskara ez ezik, ingelesa izango da hurrengo eztabaida puntua. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren asmoa ikasgai batzuk ingelesez irakastea da. Hori ez da martxan jarri oraindik, baina ingeles teknikoak ikasgai bezala ematen da. "Orain arte Batxilergoan ematen zen, baina gaur egun Lanbide Heziketan ere bai. Garrantzitsua da, makineta argibide guztiak ingelesez egoten baitira" diote lurretako irakasleek.

Hiriko eskoletako giroak erakartzen ditu ikasleak

Zamalbideetik bezala, Elizondotik ere ikasleak Iruñera joateko joera badute, eta hori Nafarroa osoan nabaritzen dela diote Elizondokoek. "Bi nukleo sortu dira: Iruñea eta Tuteran, eta horra joaten dira Lizarratik, Tafallatik, Altsasutik, hemendik... Baina hori ez da ikasleen kasuan soilik gertatzen" dio Iriartek. "Gaur egun mugitzea arrunta bihurtu da. Jende aunitz joaten da Iruñera lanera. Inertzia bat da. Edonola ere, harrizkoa da kanpora joatea hemen han adina baliabide edo gehiago, ratio txikiagoak, arreta hurbilagoak... dituztela jakinda, baina 16 urtetan hemen egon ondoren, saltsa nahi dute eta adin horretan ulertzekoa da".

Prestigioa jokoan Batxilergoaren eta Lanbide Heziketaren artean

Oraindik Batxilergoak eta unibertsitateak ikasle asko erakartzen baditu ere, Lanbide Heziketara gero eta jende gehiagok jotzen duela diote lurretako eta Elizondoko eskolakoek. Lana aurkitzeko aukera gehiago eskaintzen dituela ikusten omen dute ikasleek. Urrozek ofizio bat jakiteari ematen dio garrantzia. "Lanbide eskolatik ateratzen direnek lanbide bat ikasten dute eta Batxilergoan aritzen diren askok horren falta izaten dute gero unibertsitetara joaten ez badira".

"Prestigioa, azken finean, zure bizia aurrera ateratzea da eta horrek bere gisara ekarriko du Lanbide Heziketan gero eta ikasle gehiago egotea" argudiatzen du Iriartek.

Erreforma eta kontraerreforma

Lanbide Heziketaren erreformak heziketa zikloen ugaritasuna eta espezializazioa ekarri zuen, eta orain, lege berriarekin berriro gauzak aldatzera doaz. Urrozek dioenez, "hainbesteko espezializaziorik ez dute eskatzen lan-tzietan. Badirudi abantaila handia-

goa dela, baina niri iruditzen zait teknikoki ez dagoela hainbeste espezializatu beharrik".

Kontraerreformak ekarri duena zera izan da: filosofia, historia eta horrelako ikasgaiak enborreko bezala ezartzea. "Ikasgai horiek oso garrantzitsuak dira, ados, baina lehenagotik horiek lantzen egon dira DBHn. Teknologiako eta praktikako orduak kendu dizkiete eta matematikan zein literaturan ez dira hobeki prestatuta etortzen. Orduan, zerbaitek huts egiten du" dio kezkaturik Urrozek. "Nik egiatzatuko nieke zer alde dagoen matematika soila eta matematika aplikatua irakastearen artean. Ez da gauza bera $2+2=4$ irakastea edo tailerlean txapak neurtzen jardutea gero zehatz-mehatz mozteko. Askoz ere interes gehiago jartzen dute bigarren kasuan. Horregatik diot, berriro formazio traktera itzultzen ari garela. Oso garrantzitsua da filosofia jakitea, baina lehenik ofizioa jakin behar da".

Kalitatea ere hitzetik hortzera erabiltzen da enpresetan, baina Urrozek kontzeptu hori gainditu egin behar dela dio. Enpresa guztiak kalitatea baldin badute, zerbaitek gehiago behar dela irizten du eta hiru gauza aipatzen ditu: intuizioa edukitzea, egiteko gaitasuna edukitzea eta egitea.

Motibazioa

Ikasleen motibazioak ere zeresana ematen du sarritan. Ikasleak ikasteko gogo handirik gabe joan ohi direla esaten dute zenbait irakasleek. Ikasleek ez dute hori ukatzen, baina motibazioa "irakaskuntza ereduaren baitan" dagoela dio Alex Marañonek. "Ziur nago ikasketa prozesua erakargarria egiten baldin bada, ikasleak motibatuta egongo direla. Memento honetan ikasle bati ikastea gustatzen al zaion galdetzen badiozu, automatikoki ezetz esango dizu. Zergatik? Ikastea gauzak memorizatzearekin, apunteak hartzearekin, azterketekin... identifikatzen duelako. Irakasteko eredu horrek ez du motibatzen".

Lanbide hastapenak

Motibazio falta ez da Lanbide Heziketako arazoa, inondik ere. Aurretik, DBHn ere arazo bera dago, eta horrek bultzatakoa da eskola porrota. Ikasle asko dira DBH gainditzen ez dutenak. Eta zer egin dezakete horiek? Batxilergoa edo Lanbide Heziketa ikasteko DBH gaindituta eduki behar dutenez, lanbide hastapenen aukera daukate. Zenbait lanbide eskoletan, heziketa zikloekin batera, lanbide hastapeneko ikasketak ematen dituzte, eta DBH gainditu gabe dutenei ofizio bat ikasteko aukera ematen diete.

Lanbide hastapenaren eta heziketa zikloen arteko beste desberdintasun bat zera da: askoz ere praktikoagoak direla (gutxienez %90 praktikoak da) eta ez dutela goitik erabakitako programa, hots, eskolak berak diseinatzen du ikasleen beharren arabera. Betiko irakaskuntza modua alde batera utzi eta makinetan lan praktikoa egiten hasten dira, eta horixe da ikasleek nahi izaten dutena.

Elizondoko lanbide eskolan ikasleen %30 lanbide hastapenetan dabil. Galdaragintza, soldadura, administrazioa eta merkataritza txikia dituzte aukeran. Zuzendariak dioenez, ikasleak pozik joaten dira. *“DBH gainditu ez duten ikasleak birziklatzen ditugu eta beharrezkoa ikusten dugu. Eskolan nazkatuta egoten dira hainbeste matematika eta literaturarekin, eta hona etorri eta soldadura ikasten hasten dira, txapak ebakitzen, tailerreko makinak erabiltzen... eta hori beste gauza bat da beraiantzat”*. Zenbait ikaslerengan izugarritzko aldaketa antzematen omen da, ondoren heziketa zikloen bat ikasten jarraitu nahi izaten dutelarik.

EAEn DBH gainditu ez dutenak hasten dira lanbide hastapenetan, baina Nafarroan DBH bukatu ez dutenak, alegia, 15 urtekoak. *“Aspertu eta nekatu baino lehen ekarri behar direla ikusten dugu. Hori beharrezkoa da, eta horregatik, Nafar Gobernuak lehenbailehen hasiko da 15 urterekin eskolatik ateratzeko aukera zabaltzen”*.

Goierri Fundazioaren eredu integrala

Goierri Fundazioa lanbide eskola baino zerbait gehiago da. Prestakuntza, enplegua eta ikerketa biltzen dituen zentroa da, eta Goierriin erreferentzia dena.

Ordizian kokatuta dagoen Fundazioa hasieran “escuela de aprendiz” bezala sortu zen eta 1984an Goierri lanbide eskola bilakatu zen. Bost urte beranduago fundazio izatera pasa zen eta horrek bestelako babesa eman zion eskolari, atzean bailarako bost udaletxe eta hiru enpresa jartzea ekarri baitzuen. Gaur egun, 18 udaletxe eta 40 enpresa daude fundazioan.

Bilakaera horrek eragina izan du eskolaren eboluzioan ere, eta pixkanaka-pixkanaka eskolaren eskaintza eta zerbitzuak gehituz joan dira. Memento honetan irakaskuntzarekin eta lan munduarekin zerikusia duten hainbat arlo asetzen ditu:

- Goierri lanbide eskola: erdi eta goi mailako heziketa zikloak eskaintzen ditu.

- Lanbide hastapenak: DBH gainditzen ez duten ikasleek heziketa zikloak ezin dituztenez egin, lanbide hastapenetara jo dezakete.

- Goierri zerbitzu teknologikoa: enpresei aholkularitza, formazioa eta laguntza teknikoak ematen dien zerbitzua da, batez ere lau eremutan: galdaragintza, mekanika, automatismoak eta sistemak eta antolakuntza.

- Ikaslan: azken ikasmilako ikas-

leek praktikak egiteko erakunde autonomoa da eta enpresa bezala funtzionatzen du. Ikasleek egun erdiz ikasi eta beste egun erdiz lan egiten dute. Bailarako enpresentzako lana egiten da bertan.

- Enplegu zerbitzua: ikasleak lan munduan sartzeko lanak egiten ditu: informatu, aholkatu, prestatu, lan eskaintzak bilatu, bitartekari lana egin...

- Unibertsitatea: mekanikan espezializatutako Industria Ingeniaritza Teknikoa ikasteko aukera dago. Mondragon Unibertsitatearekin egindako hitzarmen baten bidez unibertsitate ikasketak hori ikas daiteke. 2005. urtean aterako da lehen promozioa.

Goierri Fundazioaren ezaugarrietako bat bailarako enpresetara egokitzeta izan da. Udaletxeekin eta enpresek duten erlazioaren ondorioz, ia ikasle denek lana aurkitzen dute. Horretarako, noski, enpresek behar dutenari erantzutea giltzarria dela ikusten dute. Modako heziketa zikloak eta espezialitateak eskaintzeari muzin eginez, bailarako enpresek eskatzen diotenari lehial izan dira beti.



G A I A
Lanbide Heziketa
Ahuleziak eta indarguneak

G

mel ainscow

Manchester Unibertsitateko
irakaslea



Eskola berneratzaileagoak lortzeko, eskolan
lan egiteko moduak aldatu egin behar dira.
Eskolako kultura aldatu behar da.



Berritzeguneek Donostian antolatuta zuten Guztientzako eskola biltzarrean parte hartu zuen Manchesterreko Unibertsitatean Hezkuntzako irakasle eta Ikerketa dekano chi honek.

Hezkuntzari lotutako bere jardunean hainbat erakundetan parte hartu izan du. Besteak beste, UNESCOko, UNICEFeko eta Save The Children-eko aholkularia da. UNESCOren irakasleak prestatzeko Hezkuntza premia bereziak gelan proiektuaren zuzendaria izan da. Proiektu horren barruan munduko 80 herrialde baino gehiagotan egiten dira jarduerak. Cambridge Unibertsitatean Guztiontzako hezkuntzaren kalitatea hobetzen ikerketa eta garapen proiektua koordinatu zuen. Eta Hirietan bikaintasuna lidergoa garatzeko taldeko partaidea da. Madrillgo Hezkuntza Ministeriari hezkuntza politika barneratzaileei buruzko aholkuak ematen ere jardun da.

Ikerketa uparitan murgilduta egon da betidanik eta argitalpen sorta bat ere kaleratua du. Gehienak eskola barneratzailearen ingurukoak dira, eta gai hori izan da elkarrizketaren ardatz.

Eskola barneratzailearen kontzeptua arras berria da. Zer egon da horren aurretik historikoki?

Hezkuntza sistema barneratzaileaz mintzatzean atzera begiratu behar dugu, historiara. 100 urte soilik atzera egiten badugu, konturatuko gara hezkuntza jende aberatsaren esku baino ez zegoela, eta normalean mutilak soilik joaten ziren. XIX. mendean hasi zen hezkuntza poliki-poliki orokortzen, eta XX. mendean neska-mutil gehienek eskolara joateko aukera zuten.

Baina urritasunak dituzten haurren auzia beti hori egon da. Banatuta egoten ziren eta beraien hezkuntza erakunde konkretu batzuen borondatearen baitan gelditzen zen. Guraso elkarteak, karitate taldeak eta eliza ziren erakunde horiek. Urritasuna zuten haurrei eskaintzen ziren hezkuntza ezzen ofiziala, borondatezkoa baizik.

XX. mendean hainbat aldarrikapen eta borroka egon ziren haur horiek hezkuntzarako eskubidea zutela konbentzi zitezten gobernuak. Hori XX. mendean gertatu zen, eta interesgarria da. Zeren, orain dela hilabete batzuk Katalunian izan nintzen, eta oraindik eskola bereziak badaudela ikusi nuen, gehienbat guraso elkarrekin antolatutakoak. Gobernuak ordaintzen ditu irakasleak, baina eskola gurasoena da.

Beraz, gaur egun oraindik ere indarrean dago haur horiek hezkuntzarako eskubidea dutela errebindikatzeko. Ingalaterran, esaterako, 1970 arte hezkuntza sisteman integratu gabeko haur taldeak zeuden eta urte horietatik aurrera onartu zuen gobernuak zailtasun larriak zituzten haurrak hezkuntzan sartu behar zutela.

Horrenbestez, heziketa bereziaren historiari so eginez gero, berehala konturatzen gara etengabeko borroka egin behar izan dela taldetik kanpora utzitako haur horien alde, hots, haur horiek integratzeko. Horrela, XX. mendearen bukaeran integrazioaz hitz egiten zen, eta gaur egun barneratzeaz.



Bi kontzepturekin aurkitzen gara: hezkuntza integratzailea eta barneratzailea. Zein da bien arteko desberdinasuna?

Ez dago batere argi. 1994an Nazioarteko Biltzar bat egin zen Salamancan UNESCOk antolatuta. Bertan mundu osoko gobernuetako eta gobernu kanpoko erakundetako ordezkariak bildu ziren heziketa bereziaren etorkizunaz eta egin beharko litzatekeenaz eztabaidatzeko. Bertan zera erabaki zen: hurrengo urratsa barneratzearen ideia garatzea zela.

10 urte pasa dira ordutik, eta oraindik ere ez dago argi zein den integrazioaren eta barneratzearen arteko aldea. Herrialde guztietan dago nahasmena eta ez dago adostasunik. Dena den, nik badut nire iritzia eta hori azalduko dizuet.

Niretzat integrazioa bereziak ziren ikasleak ildo orokorrean sartzeko saioak bat zen. Beraz, haurrak prestatu egiten ziren, haurrak babestu egiten ziren, eta posible baldin bazen eskola arruntera bidaltzen ziren, gehienetan auzoko eskolara auzoko gainontzeko haurrekin batera. Finean, haurrak prestatu eta bultzatu egiten ziren. Gakoa zen haurrek sisteman egoteko gai izan behar zutela eta onartuak izan behar zutela, betiere zegoen eredura egokitzuten edo moldatzen baldin baziren. Puzzle bat edukitzea bezala da: haurra pieza bat da eta zuk puzzlean jartzen duzu. Beraz, urritasuna duen haurra

Zer da *normala* izatea? Ikuspuntu horrek pertsona *normalak* eta *anormalak* daudela pentsatzera garamatza eta bien arteko marra bat ezartzera. Ikuspegi barneratzaileak normaltasunaren definizioa zabaldu egiten du guztiak normalak garela esanez, eta ez du axola zein ezaugarri, hizkuntza, kultura, erlijio, urritasun fisiko edota adimen urritasun ditugun, normaltasunak denak barneratzen gaitu eta

puzzlean ondo egokitzen bada, ongi etorria izango da.

Hurbilketa hori nahiko arrakastatsua izan da nazioartean eta gaur egun herrialde askotan urritasunak dituzten haurrak auzoko eskolara joaten dira. Duela urte batzuk hori pentsaezina izango zatekeen.

Baina hurbilketa horren muga zera da: haurra ez baldin bada egokitzen, agur esaten zaio. Haurra egokitzen baldin bada, jarrai dezake. Oso ongi. Ez dago arazorik. Haatik, haurra zaila baldin bada edo eskatzen zaion guztiari erantzuten ez baldin badio, kanpora bidaltzen da berriro.

Barneratzea, ordea, beste modu batera pentsatzea da. Filosofia aldatzea esan nahi du, gai bati ikuspegi anitzetatik begiratzea. Nik esango nuke barneratzea ez dela haurrak egokitzea, baizik eta sistema aldatzea. Hortaz, "haur hau hezkuntza sisteman egokitzen da" esan beharrean, honakoa galdetuko genuke: nola garatu beharko genuke hezkuntza sistema haur guztiek bertan egoteko eskubidea izan dezaten?

Orduan, nola definituko zenuke eskola barneratzailea?

Barneratzaileak guztientzako eskola esan nahi du, guztiei toki egin behar diela. Noski, ez da erraza, epe luzeko proiektua baizik. Baina norabidea marrazten duen galdera zera da: ezauga-



riak edozein direlarik ere, haur guztiak barneratuko eta heziko dituzten eskola garatuak eta aurreratuak dituen hezkuntza sistema bat sortu ahal izateko bideak aurkitzeko gai al gara? Hezkuntza sistema barneratzaileak haur guztiei erantzun behar die, eta arriskuan, baztertuta



edo kanporatuta senti daitezkeen haurrei ere bai. Horrek izan behar du helburua.

Barneratzearen ikuspegi horrek herrialde, lurralde, eskualde, herri eta auzo guztietako zentroetan galdera bat jartzen du erdigunean: zer egin behar dugu aurrera jotzeko? Zein da eskolaz dugun ikuspuntua? Zein aldaketa dira beharrezko norabide horretan mugitu gaiten?

Integrazioa baino askoz ere zailagoa da, askoz ere jende gehiago inplikatzeko eskatzen baitu. Barneratzeak galdera honi erantzutea dakar: nola gara dezakegu hezkuntza sistema aniztasunari erantzun diezaión? Ados nago Salamancan agertu zen argudioarekin, hau da: sistemaren antolaketan, curriculumean, irakasteko moduan, harremanetan, baliabideetan... egiten baditugu aldaketak, sistema bera aldatu egingo da, eta hori onugarria izango da haurrentzat. Horrenbestez, memento

honetan oso ondo moldatzen ez diren haurrak hobeto ibiliko dira, guztientzat izango da onuragarria.

Zein da eskola barneratzailearen muina edo zutabea?

Eskola barneratzaileagoak lortzeko, eskolako lan egiteko moduak aldatu egin behar dira. Eskolako kultura aldatu behar da. Eskola gehienetako kultura oso indibidualista da, bakoitzak berea planifikatzen du, bakoitzak bere kabuz egiten du lan, bakoitzak bere arazoak konpontzen ditu, eta denek biziraun egin behar dute, bakoitzak bere burua zaindu behar duelarik. Barneratzaileagoak diren eskoletan elkarrekin planifikatzen dute eta arazoei elkarrekin bilatzen diete irtenbidea. Horrela, babes, laguntza eta kolaborazio gehiagoko giroa lortzen da. Noski, hori haurrentzat ez ezik, irakasleentzat ere ona da, lan egiteko leku hobea eta atsegina goa lortzen baita.

Irakasleen jarrera eta lan egiteko modua desberdina al da eskola barneratzaileetan?

Irakasleek elkarrekin lan egin behar dutenez, horretarako denbora behar dute; alegia, elkarrekin planifikatzeko, gelan elkarrekin egoteko... Psikologoek, aholkulariek eta kanpotik laguntzera etortzen direnek ere lan egiteko modua aldatu behar dute, irakasleekin lankidetzara gehiago eginez.

Horregatik da garrantzitsua integrazioetik barneratzera dagoen aldea. Ohiko eskoletan irakasleak bakarrik eta abandonatuta sentitzen dira, euren arazoei bakarrik egin behar diete aurre. Eskola barneratzaileetan, aldiz, irakasleak ez daude bakarrik, talde bateko partaide dira eta talde horrek babesa eta laguntza ematen die; taldekideekin mintza daitezke aholkuak eta laguntza jasotzeko. Hor dago aldaketaren muina.

Zein da gela barneratzaile baten eta ez barneratzaile baten arteko desberdintasuna?

Nik ez nuke gela barneratzaileaz eta ez barneratzaileaz hitz egingo, baizik

eta gela barneratzaileaz eta barneratzaileagoaz.

Orduan, gela barneratzaileagoan harreman gehiago egon ohi da. Irakasleek ikasle bezala ikusten dute euren burua, etengabe esperimentatzen dute, eta haur bakoitza taldean barneratzeko moduak bilatzen saiatzen dira, betiere beren esperientziatik eta zailtasunetatik abiatuta. "Nola erakar ditzaket ikasleak? Nola lortu gaiak interesgarriak izan daitezkeen? Nola bilakatu nire jarduna esanguratsu ikasleentzat?". Horrelako kezkek izaten dituzte irakasleek.

Beste modu batera esanda, irakasleak ikasle sentitzen dira, ikasle berritzaileak, eta horrez gain, gainontzekoak ere ikasle bezala ikusten dituzte. Hau da, badakite haurrak beraiek eragile garrantzitsuak izan daitezkeela gelan.

Gela barneratzaileago batean irakasleak hitz egin, planifikatu eta antolatu egiten du, noski, baina ikasleek ere planifika eta antola dezaten arduratzen da. Ikasleek elkarri laguntzen diote, elkarrekin egiten dituzte proiektuak eta oso aktiboak izan daitezkeela gelan.

Modu horretan, ikasle guztiek gehiago ikasten dute, gehiago inplikatu dira, ingurunearekiko aktiboagoak izaten dira, eta noski, guztiek emaitza hobea erdiesten dituzte. Horrek guztiak irakasleak babestu egiten ditu, eta konturatzen dira esperimenta dezaketela, arriskatu daitezkeela, sekula egin gabeko gauzak egin ditzaketela...

Gela barneratzaileagoetan irakas-



leek elkarrekin egiten dute lan, elkarrekin planifikatzen dute. Gela batean irakasle bi edo hiru elkar litezke nola irakatsi behar duten eztabaidatzeko eta erabakitzeko.

Egoera hori nahiko erradikala suertatzen da herrialde gehienetan. Egun, oraindik, eskola batera joaten bagara, irakasle bakoitza bere gelan sartuta ikusiko dugu, atea itxita eta 30 ikaslerekin. Ondoren, irakasle gelan kafea hartuko du, baina ez du jakingo beste irakasleak zer egiten ari diren.

Eskola barneratzailea lortzeko egin beharko lirakeen aldaketa zehatz batzuk aipatuko al zenituzke?

Hezkuntza barneratzaileak haur guztiak bere baitan hartzen dituen, ez dago zertan izendatu eta bereizi behar. Hori da lehenengo gauza.

Bigarren puntua *normaltasuna* kontzeptuari lotua dago. Zer da *normaltasuna*? Zer da *normala* izatea? Ikuspuntu horrek pertsona *normalak* eta *anormalak* daudela pentsatzera garamatza, eta bien arteko marra bat ezartzera. Ikuspegi barneratzaileak normaltasunaren definizioa zabaldu egiten du guztiak normalak garela esanez, guztiak gizakiak garela esanez, eta ez du axola zein ezaugarri, hizkuntza, kultura, erlijio, urritasun fisiko edota adimen urritasun ditugun, normaltasunak denak barneratzen gaitu eta. Denak biltzen dituen gizarte barneratzaile

Aldaketa sakonak eta benetako eboluzioa nahi baditugu, sistema osoa aldatu behar dugu, ez eskola bakan batzuk. Eskola guztiek norabide berean jardun behar dute eta horretarako komunitate osoak pentsatu eta sinestu behar du sistema barneratzailean



bat nahi baldin badugu, hurrengo haur eta gazte belaunaldia prestatu egin behar dugu gizarte barneratzaile batean bizitzeko gai izan dadin.

Zer egin da orain arte? Zer deritzozu?

Azken 10 urteotan herrialde askotan eskola batzuk aurrerapausoak eman dituzte. Gai hau aztertu dute eta aurrera nola egin ikasi dute. Baina niretzat arazoa da eskola bakanak direla hori egiten dutenak, hots, pertsona indibidualak, normalean eskola aldatu nahi duten pertsona gogotsuak, gartsuak eta karismadunak. Noski, pertsona horiengandik asko ikas dezakegula pentsatzen dut, baina ez da nahikoa.

Orduan, zer gehiago egin behar da?

Aldaketa sakonak eta benetako eboluzioa nahi baditugu, sistema osoa aldatu behar dugu, ez eskola bakan batzuk. Eskola guztiek norabide berean jardun behar dute eta horretarako komunitate osoak pentsatu eta sinestu behar du sistema barneratzailean.

Horrek liderrak eskatzen ditu esko-

la barruan, beren gelatik atera eta elkarrekin lan egingo duten irakasleak, hezkuntza komunitatearengandik eta familiengandik gertuago dauden eskolak, eta eskolaren ikuspegi hori bera duten hezkuntza politika, politikoak eta administrariak. Teknikoki erraza da, baina sozialki oso konplexua da.

Zein dira traba nagusiak?

Traba ugari daude eta horietako batzuk fisikoak dira. Adibidez, eraikuntzak ez dira egokiak, baina hori erraz konpon daiteke. Beste eragozpen batzuk curriculumari lotutakoak dira, beste batzuk irakasteko moduari, beste batzuk ebaluazioaren gainekoak eta beste batzuk harremani lotutakoak. Edonola ere, trabarik nagusia pertsonen pentsamendua da. Baliabideak hobeto ustiatzea edo errekurtsio gehiago edukitzea teknikoki erraza da. Zailena denen arteko adostasuna lortzea da, denak elkarrekin lan egitea, egiten ari dena guztiek modu berean ulertzea. Aurretik daukagun esperientziak mugak jartzen dizkigu. Zentzu horretan, esperientziarik ez dutenak errazago moldatzen dira. Esperientzia duten ira-

kasleei zaila egiten zaie inoiz egin ez duten zerbait egitea. Nolabait esatearren, beti maleta batekin ibiliko bagina bezala da, non hor gordetzen ditugun aurreko ideiak eta esperientziak. Horietako batzuk erabilgarriak izan litezke, baina beste batzuk arazoak sortzeko baino ez dira.

Zenbateko garrantzia ematen diozu familiarekin eta inguruko erakundeekin lan egiteari?

Hori funtsezkoa da. Familiarekin, erakundeekin, gobernuarekin, gobernu kanpoko erakundeekin, ai-



sialdiko taldeekin eta abar lankidetzan aritzea funtsezkoa da eraldaketa sakonak egiteko. Alderdi guztiak elkarrekin aritzea ezinbestekoa da. Eta hori zaila da. Izan ere, gure gizartean norabide horretan joan nahi ez duen jendea badago, hots, eskola barneratzaileak nahi ez dituen jendea. Beraz, eztabaida eskolaz haratago doa; komunitate osoak erabaki behar du nolako eskola mota nahi duen.

Euskal Herrira etorri zara. Nola ikusi duzu hemengo egoera?

Beste herrialdeekin konparatuta, nahiko errekurso daukazue, eta hezkuntza barneratzailearen alde pauso garrantzitsuak eman dituzue. Horrez gain, Hezkuntza sailburua horrelako biltzarretan dirua jartzeko prest dago, eta horrek adierazten du garrantzia ematen diola. Biltzarrak garestiak dira,

baina era berean, errazak dira. Ez duzu ezer aldatu behar. Biltzarra antolatu eta kito. Argazkiak atera, sailburuak hitzaldia eman, atzerriko jendea ekarri eta abar. Finean, biltzarrek ez dute balio ezer aldatzeko. Baina, gauza positiboki ere badituzte: esanahi indartsua duen sinbolo bat sortzen dute, eta hori garrantzitsua da aurrerapausoak emateko. Herrialde batzuetan horrelakorik ez dago, eta hori okerrago da.

Europan non garatu da gehien hezkuntza barneratzailea?

Gehienbat Eskandinaviako herrialdeetan: Norvegian, Suedian, Danimarkan, Finlandian eta Islandian. Orain dela 200 urte jada integratuta zeuden. Norvegian, esate baterako, "guztientzako eskola" XVIII. mendetik zetorren filosofia izan da. Herrialde horiek oso demokratikoak eta parte-hartzaileak izan dira, tradizio indartsua dute horretan, eta eskoletan hori islatu egin da.

Kontinentean behera eginez gero, Holandan, Belgikan, Frantzian, Alemanian, Britania Handian... tradizionalki sistema baztertzailak izan dituzte. Britania Handian, adibidez, sistema baztertzailak egon dira, baina ez urritasunak dituzten haurren kasuan soilik, baita klase bazterketakoak ere. Aberatsentzako eskolak eta behartsuentzako eskolak zeuden; erlijio honentzako eskolak eta erlijio harentzako eskolak. Herrialde horietan banaketaren ideia egon da, Eskandinavian ez bezala.

Latindar herrialdeak interesgarriak iruditzen zaizkit. Azken urteotan izugarrizko aldaketak egon dira Portugalen, Italian eta Espainian politika arloan. Diktaduratik demokraziarako prozesuek bertako hezkuntza sistemetan eragin dute.

Munduan zehar zer esperientzia daude?

Hego Afrikan apartheid-aren ondorengo garaian asko eztabaidatu zen hezkuntza motaren inguruan. Apartheid egoeratik gizarte demokratikora pasa behar bazen, zein eskola sistema behar zen? Hori zen galdera.

Munduan zehar herrialde askotan ari dira eskola barneratzailearen aldeko urratsak ematen, bai herrialde aberatsetan eta bai herrialde behartsuetan. Hego Afrika aipatu dut lehen; Australian izugarrizko aurrerapausoak eman dituzte; Txilen, Perun, Brasilen... ere bai. Mugimendu handia dago.

Hortaz, nola ikusten duzu etorkizuna?

Esan dudan bezala, mugimendua badago, baina ez du esan nahi beti aurrerapausoak ematen direnik, ez baita erraza eta arazorik gabe gauzatzen. Baina mugimendua badago eta horrek badu bere historia atzetik: haur eta gazteei eraginkorrago irakasteko moduak nola garatu ikasten ari dira herrialdeak.

Ni baikor nago. XX. mendean ildo hori nagusituko dela uste dut. Hezkuntza herrialde gehien agendan dago, batez ere Mendebaldean. Hezkuntzari buruzko eztabaida sozialak eta politikoak ugaritzen ari dira eta hori ona da.

Ziur nago aurrerago joan gaitzekela, ez dakit noraino, baina aurrerago joan gaitzeko, hori bai.



gordon l. porter

Kanadako Maine Unibertsitateko
irakaslea



Arrakasta lortzeko gela berezirik
ez dugula behar erakutsi dugu





Kanadatik etorri zen Gordon L. Porter jauna Guztientzako eskola biltzarrera. Presque Isleko Maine Unibertsitateko Hezkuntzako irakasle elkartua da eta Inclusion InterAmericana erakundeko lehendakaria. Heziketa barneratzailearen eredu eta estrategiez mintzatu zen hitzaldian, lan horretan eskarmentua duen gizona baita: 20 urteko esperientzia du eskola barneratzaileetan eta funtsezko liderrizan da bere erkidegoan, probintzian eta haietatik kanpo eskola programa barneratzaileak sortzeko orduan.

Kanadan 1982an hasi ziren eskola barneratzailearen ideia zabaltzen. Gordon L. Porterren probintzian, New Brunswick-en, 1982tik 1985era jardun zuten ideia hori lantzen eta 1986an probintzia osoan zabaldtu zen. Gaur egun eskola barneratzaile gehien dituen herrialdea da.

Ez da harritzekoa, berez, Gordon L. Porter mundu osoan zehar aritzea horrelako ikastetxeak sortzen eta aholkuak ematen.

Zer da hezkuntza barneratzailea zuretzat?

Urritasunak dituzten ikasleek auzoko eskolan ikasten duten hezkuntza sistema da, non bere adinekoekin egoten diren, urritasunik ez duten ikasleekin batera, eta beraien gaitasunen eta beharren arabera irakaskuntza ematen zaien.

Zein dira eskola normalaren eta barneratzailearen arteko desberdintasunak heziketa bereziari dagokionez?

Eskola normalean arazoak dituen ikaslea psikologoarengana bidaltzen du irakasleak, eta psikologoak egiten du plangintza, berak erabakitzen du nora bidali, eskola berezi batera eraman edo ez... Irakasleak ez du ezer egiten. Garai batean irakasleak ez zuen psikologoaren txostena irakurri ere egiten. Irakaslea libre gelditzen da eta gustura. Baina gero ikasle gehiago etorriko dira, eta irakaslea beti ihesibiliko da.

Eskola barneratzailean, aldiz, irakasleak irakaslearekin jarraitzen du. Laguntza jasotzen du, noski, baina gela barruan. Psikologoa berari laguntzen egoten da eta hark egiten duena ikusten du.

Hezkuntza barneratzailea duen eskola batean lana irakasle arruntek egin behar dute, eta gainerakoek lagundu. Laguntzaileen, logopeden, psikologoaren... zeregina irakasle arruntari laguntzea da.

Zer behar da hori guztia martxan jartzeko? Zein dira funtsezko oinarriak?

Eskola barneratzaileak oinarrizko bost praktika ditu: Ikasleentzako Laguntza Taldea, irakasle laguntzailea, maila anitzeko irakaskuntza, irakasle-en prestakuntza pertsonala eta arazoak konpontzeko estrategia sortzaileak.

Zer da Ikasleentzako Laguntza Taldea?

Eskola barneratzaileetan Ikasleentzako Laguntza Taldeak daude eta bertan parte hartzen dute ikasleari eta irak-

kasleari laguntzen dioten guztiak: zuzendariak, psikologoak, aholkulariek, gurasoek, profesionalek... Talde horrek erabakitzen du irakasle laguntzaileek norekin eta zenbat denbora egon behar duten. Taldearekin batera, zuzendaria ere funtsezko eragilea da. Oso garrantzitsua da jarrera ona edukitzea, lan taldearekin batera aritzea, eskolan ibiltzea eta bulegoan sartuta ez egotea, arazoei adarretatik heltzea eta liderra edo erreferentzia izatea.

Bigarren elementua irakasle laguntzailea da. Zein da bere eginkizuna?

Irakasleekin, gurasoekin eta beste profesionalekin kolaboratzen du ikasleek arrakasta izan dezaten ikasketa prozesuan. Bere zeregina irakasleari laguntzea denez, denbora gehien gela irakasleari laguntzen pasa behar du, eta ez eskolan. Bera bakarrik egoten baldin bada haurarekin, irakasleak ez du ezer ikusten eta ikasten. Horregatik, irakasle arruntarekin egon behar du denbora gehien curriculum nola antolatuta erakusten, arazoa nola bideratu erakusten... Irakasle arruntarekin batera hartu behar du parte, estrategiak sortu, aholkuak eman, gomendioak egin... Irakasle arruntaren entrena-tzailea izango litzateke, nolabait esatearren.

Hezkuntza
bameratzailea duen
eskola batean lana
irakasle arruntek egin
behar dute, eta
gainerakoek lagundu.
Laguntzaileen,
logopeden,
psikologoan...
zeregina irakasle
arruntari laguntzea
da

Eskola arruntean oraindik ere irakasle laguntzaileak eta gela bereziak ez al dute pisu handia?


Bai, hala da. Oraindik ikasle laguntzailearen eskuetan uzten da eta uste dut hurrengo urratsa hori aldatzea izan behar duela: hots, urritasunak dituen ikaslearentzat onena bere ikaskideekin eta irakaslearekin egotea dela konturatzeta eta errekonozitzea, eta ez gela berezian egotea. Hobe da irakasle bereziarengana bidaltzea baino irakasle berezi hori gelan egotea irakasle arruntari laguntzen. Ikasle bat denbora labur baterako gelatik ateratzea eta irakasle bereziarengana bidaltzea ozeanora harriak botatzea bezala da.

Baina, gela batean urritasun askotariko ikasleak baldin badaude, nola erantzun guztiei?

Proporzio naturala gordetzen da. Haurrak komunitatean bizi dira eta eskolak komunitateari erantzun behar dio. Edonola ere, normalean gela berean ez dira arazodun asko egoten. Noski, premiadun ikasle gehiago baldin badaude, irakasleari laguntza gehiago ematen zaio. Irakasle batzuek egun osoan behar izaten dute laguntza, eta beste batzuek ordu bakanetan.

Zer ezaugarri edo prestakuntza behar ditu irakasle laguntzaileak zure ustez?

Lan hori egiteko ohiko gelan arrakasta duena aukeratuko nuke, ez hasi berria den irakasle bat. Ezagutza izatea ona da, baina esperientzia profesionala hobea. Horregatik, gela barruan aritu den bat aukeratuko nuke. Horrez gain, animoa galtzen ez duen pertsona izan behar du, baikorra, positiboa...



Zenbat irakasle laguntzaile egoten dira eskola barneratzaileetan normalean?

Hasieran asko egoten ziren, baina gauregun irakasle arruntak trebeagoak diren heinean, gutxiago. Gutxi gorabehera 200-250 ikasleko 10-12 irakasle arrunt eta irakasle laguntzaile bat izan ohi dira.

Zer diozu irakasle arrunten prestakuntzaz?

Prestakuntzarik onena elkarlanean aritzea da. Arazoak sortzen direnean denen artean erantzutea eta elkarri babesa ematea funtsezkoa da. Horregatik, elkarri laguntzeko irakasle taldeak sortzen dira, irakasle laguntzaile bat buru dutelarik. Talde horietan arazo bati irtenbidea bilatzen saiatzen dira 30 minutuko saioan.

Horrela, "adituengandik datozen irtenbideekiko" menpekotasuna galzten dute eta lankidetzak bultzatzen dute. Laguntzaile onenak lankideak izan ohi dira.

Maila anitzeko irakaskuntza da hirugarren ezaugarria. Zer esan nahi duzu horrekin?

Ikasleen behar askotarikoei erantzuten dien ereduak da. Ikasle guztiak gela arruntean onartzen ditugu, baina bakoitzaren maila edo erritmoa desberdina denez, bakoitzari bere neurria erantzun beharko zaio. Irakasleak premia bereziak zein diren ikusi beharko du eta hori kontuan izanda jokatu beharko du. Adibidez, gai bat lantzerakoan, mailakatu egin beharko du eta lau urrats eman beharko ditu. Lehendabizi gelako oinarrizko kontzeptuak identifikatu. Bigarrenik kontzeptuak nola aurkeztuko diren zehaztu. Hirugarrenik ikasleentzako praktikarako metodoa ezarri. Eta azkenik, ebaluazio modua erabaki. Hori guztia, ikasle guztien premiak kontuan hartuz egin behar da.


Ez al dago arriskurik ikasle jakin batzuegan interpretazio okerrak egiteko, eta ondorioz, dagokiena baino maila baxuagoa eskaintzeko?

Douglas Williams doktorearen ikerketek diote haur baten garapena zein izango den ondoen iragarriko duena berekin dagoena izango dela, hots, bere irakaslea. Zentzu horretan, teoriak diotenari jaramon egin beharrean, irakasleari egin behar zaio. Esate baterako, urritasun jakin batzuetako haurrek ezin zutela elebidun izan esan izan da. Noski, hori sinesen badugu eta haurrak testuinguru elebarkar batean sartu, ez dugu lortuko elebidun izatea. Orain, testuinguru elebidun batean, ikasle hori kognitiboki prest baldin badago, laguntzarekin garatuko du elebitasuna. Beraz, aldagairik garrantzitsuena da ikasle hori norekin dagoen.

Zer onura ekarri dio eskola barneratzaileak gizaritari?

Orain dela 27 urte Peter Pan izeneko eskola berezi bat zegoen gure herrian. Eskola hura nolako zen jakiteko kuriositatea neukan. 10 urteko semeak eskola haren ondotik pasa behar zenez berera joateko, zuzendariarentzako gutun bat eramateko esan nion. Egun batzuk pasa ziren, eta gutuna oraindik etxean zegoen, nik utzitako leku berean. Semeak ez zion eskolari begiratu ere egin. Peter Pan ez zen nire semeak ikusi nahi zuen leku bat, eta ez zuen nahi lagunek handik ateratzen ikus zezaten. Ez zen ohiko lekua, ez ziren pertsona arruntak joaten hara.

Gaur egun, berriz, egoera aldatu egin da. Nire biloba eskola barneratzaile batean dabil, eta semeak ez bezala ikusten ditu gauzak: gelan era guztieta-



ko ikasleak ditu, ez du ikaskide desberdinik ikusten. Gizaratearentzat aurrerabidea da ikuspegi hori.

Douglas Williams doktoreak dio eskolan zenbat eta aniztasun gehiago lortu, orduan eta emaitza hobeak lortuko ditugula gure ikasleekin.

Azken batean, arraskasta lortzeko gela berezirik ez dugula behar erakutsi dugu. Hezkuntza barneratzaileak ikuspegi positiboagoa du irakasleei eta ikasleei begira.

Orain arteko esperientziak ikusita, nolako iritzia dute adituek eskola barneratzaileari buruz?

LGEE Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako erakundeak zera zioen 1999an: "New Brunswick hezkuntza barneratzailearen prozesuaren aitzindari izan da gero eta haur gutxiago bidali dituelako eskola berezietara, azkenean derrigorrezko hezkuntzako ikasle guztiak zentro arruntetan egotea lortu arte".



Eskolak ongi erakusten al du koloreak ikusten?



Txema PRECIADO

EHko Donostiako Irakasle Eskolako irakaslea

Kolorearen pertzepzioa: ikasgelan duen eragina. Huk Hasi 75. zenbakian irakurri nuen eta koloreak ikusteko zailtasunak dituen ikasle kopuru bat badagoela aintzat hartu behar dugula hartarazten gaitu. Kolore hauterate fenomeno aztertzen nahian, koloreak ikuspuntu fisiologikotik aztertzen pasatzen da (kolorearen pertzepzioa begiaren erretinan dauden kono izeneko zelula batzuei esker gauzatzen da), chiko patologiak aipatzeko gero. Eta artikuluaren izenburuan ez ezik, aldizkariaren azalean zein aurkibidean kolore hitza pluralen etortzea ikuskera baten isla ez ote den nago.

Dena den, bere baitan artikuluak duen balioa gutxiesten inongo asmorik gabe, neuk, ordea, zailtasunak dituztenek kopuru ikaragarri handi goa osatzen dutela uste dut, baita egoera biziki kezkatzekoa dela ere, oro har, irakasleak (eragile garrantzitsuak izanda) muin-muinean sartuta baitaude. Ez naiz, jakina, ezintasun fisiologikoez ari, ezta bereziki “Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloari” buruz ere, kolore fenomeno haute-mateko eraz baizik, euskal ikuskeraz, hain zuzen.

Koloreak erakustea <gauzakiek dituzten koloreak bereiztea eta izendatzea> dela irakasle kopuru handi batek uste duelakoan nago, eta horretarako lamina koloredunak, margoak edota inguratzen gaituzten gauzakiak (gehi-gehiak artifizialki sortutakoak) erabili behar direla. Uste oker eta ikaragarri murriztailea da hori.

Koloreak ez dira hor dagoen zer baita eta izena ipintzea nahikoa dugun zer bait. Ez. Koloreak ikusten ikasi egiten dugu, halako eratan eta halako testuingurutan (halako fenomeno, gauzaki, egoera zenbaitetan) azaltzen zaizkigu; horiek bereizten, identifikatzen eta izendatzen erakusten digute eta horrela ikasten dugu koloreak ‘ikusten’, hautematen. Prozesu honetan, beraz, hizkuntza ezinbestekoa dugu koloreak hautemateko eta, era berean, baztertu ezinezko erreferentzia testuinguru kulturala. Panorama honetan eskolak funtzio ikaragarri garrantzitsua jokatzen

duelakoan nago eta ez duela euskal ikuskeratik –oro har– egiten iruditzen zait.

Koloreari buruzko irakaskuntzaren inguruan (tamalez, gaurkotatutako galdu ez duena) ezjakintasuna bikoitza dela aspaldian idatzi nuen: “alde batetik, gaiari berari dagokiona (fenomeno hau zer den, nola sortzen den, ea bizidun ororengan hedatuta dagoen...), eta bestetik, euskaldunak eta euskal kulturaren parte-hartzaileak garen heinean, kolorearen alde kulturalari dagokiona, hots, euskal kulturak berezko hautematea (izan) duenaz ohartzea / ohartaraztea” (Preciado, 1992: 19).

Kolorearen izaera

Kolorearen fenomeno nola sortzen den azal daiteke ezaguna dugun eskema honekin:

- Argi iturria (naturala –eguzkia, kasu– zein artifiziala –fluoreszente batena edo–).

- Ezinbestean tartean dagoena (atmosfera: nitrogenoa, ozonoa, oxigenoa, ura, hautsa...) eta, baldintza batzuk medio, erradiazio elektromagnetikoen osagaiak xurga, iragaz, heda, isla, zeihar edota nahas ditzakeena. Airean dauden zatiki nimoioek eguzkiaren argi izpiak barreiatzen dituzte guk, esaterako, urdina ikusteko moduan (edo ilunabarrean gorrixka...).

Horrekin batera sarri egoten da objektu edo gauzaki bat (sagarra, enborra...) argi izpiek bertan joz edo zeharkatuz (beira, azetatoa, filtroak...) edo gauza biak eginez.

- Jasotzailea, detektatzailea. Gure kasuan begia da (erretina, bereziki, eta bertan hiru motatako konoak daude), baina berarekin soilik ez da lortzen kolore sentsazioa.

- Horri nerbio sistema eta garuna gehitu behar zaizkio, bertako nerbio bultzadak baitira kolore sentsazioa sortzen dutenak, eta gero eta gehiago eza gutzen den zonaldean daude ("Anatomistek kortex ildaskatuaren oinarrian <V4> deituriko zatia antzeman dute, espektro neurrien analisisan espezializatutako zatia. Zati horren lesio batek ez luke itsutasuna ekarriko, baizik eta koloreen pertzepzioaren galera". Rancillac: 1992, 29).

Horrela, bada, kolorea gure begi esperientziaren aspektu bat da, aldagai askoren menpe dagoena; zentzu honek eskema honek balio badigu ere, ezin da, besterik gabe, erabatekotzat jo, bertan beste osagai batzuk kontuan hartu behar baitira: aldi berean ikusten diren beste gauzakien koloreek duten eragina, ezagutu eta ikasitakoaren garrantzia, argiaren bidean tartekatzen diren elementuen xurgapena edo isla, hautematean sortzen diren aldaketak, konoen nekea...

Gauzakien koloreak

Kolorea, nahiz eta abstraktua izan, berehalako esperientzia da, zuzenean emozioetan eragina duena, eta gauzakien edota fenomenoaren ezaugarri gisa agertzen zaigu (ikatzaren belztasuna, elurraren zuritasuna, belardiaren berdetasuna, odolaren gorritasuna...). Kolorea gauzakien ezaugarri bezala ikusteko joera oso hedatuta egon da, eta ikuskera horrek gaurkotasunik ez duela galdu esan daiteke. Zenbateraino hedatuta dagoen antzemateko, 'moderno' omen den hiztegi batek oinarritzko koloreak nola azaltzen dituen ikusi besterik ez da egin behar: "zuri: esnearen edo elurraren kolorekoa; beltz: ikatzaren edo ebanoaren kolorekoa; gorri: odolaren kolorekoa; berde: belarraren edo muskerraren kolorekoa; marroi: gaztaina kolorekoa..." (Elhuyar-Elkar, 1994).



Baina gauzakiak eta fenomenoak ezaugarritzeko balio badu, arazoa da gauzakietan bertan kolorea fisikoki kokatzea. Izatez, ez da egia, kolorea ez baita ikusten diren gauzakien berezko ezaugarri fisikoa, argiak gauzaki horiek argitzen dituenean sortutako gertaera baizik: "Kanpoko mundua kolore gabea da. Kolore gabeko materialiaz eta kolore gabeko energiak osaturik dago. Kolorea behatzailearen inpresio sensorial bezala existitzen da (...), kolorea ez dago guk ikusten dugun lekuan. Kolore berdea ez dago uraza hostoan. Gorria ez da soineko baten oihalaren jabetza (...). Kolorearen estimuluak behatzaile baten ikusmena kolorearen sentsazioa sortzera motibatzen duenean baino ez da sortzen kolorea. Behatzailek ez baldin badago, edo itsua baldin bada, ez dago kolorea sortzeko aukerarik. Eta kolorearen estimulua akromatopiko baten begietara iristen baldin bada, kolorearen sentsazioa beste bat izango da" (Küppers, 1980: 21-22).

Eta hau ez pentsa orain dela gutxiko kontua denik, ez horixe! Gauzakiak kolorea zutela, haien ezaugarria zela eta haien ikusteko argiak egiten zuen gauza bakarra ahalbidetzea zen usteak gaurkotasuna galdu zuen, behinik behin, Descartesek 1630. urtean gauzakien kolorearen sortzailatzat argia identifikatu zuenez geroztik. Baina denboran atzera ere joan gaitezke lasai asko ideia honekin topo egiteko: Epikuro bera gauzakien kolorea argiarekin aldatzen zela ohartu zen eta gauzakiak berez kolorerik ez zutela ondorioztatu zuen; ildo horretatik, ezaguna den John Gageren hitzak (1993: 16) ekar ditzakegu hona beste izenekin

aberasteko: "Lukreziok (...), Demokritori eta Epikurori jarraituz, kolorearen irrealitate fisikoa demostratu nahi zuen".

Edonola ere, kolorea abstraktua izanda, zaila egiten zaigu gauzakitik at irudikatzea eta gauzakien gainaldearen nolakotasunarekin lotzen dugu, baldintzak aldatuta ere, gauzakiak halako ezaugarriekin ikusten jarraitzeko: "Paperezko orri batek argia irradiatzen du; ikuspegi fisikotik begiratuta berdexka da hosto berdedun zuhaitz baten azpian jartzen baldin badugu; eta horixka da kandela baten argipean begiratzen baldin badugu. Desberdintasunak desberdintasun, gure pertzepzioarentzat zuria da, edo hobe esanda, zuri-tzat hartzen dugu" (Lersch, 1971: 353).

Ildo beretik, bitxiak izaten dira hainbat fenomenoaren aurrean errotrik dauzkagun usteak; adibidez, ortzadarraren aurrean askok pentsatzen du begiak itxiz gero (edota begirada beste



tokitara zuzenduz gero) ortzadarrak hor jarraitzen duela, hots, begiralearen beharrik ez dagoela ortzadarra izateko; harridura ere adierazten du askok begirale bezainbat ortzadar dagoela entzundakoan. Baina benetan harrigarria dena zera da: XXI. mendean hori pentsatzea (Aristotelesek ekarpen hori egin zigun ortzadarra izateko hiru osagai behar-beharrezkoak zirela esatean: eguzkia, ura eta... begia! -atzo goizeko kontua, beraz!). Eta ikus fenomeno honekin jarrai daiteke: ortzadarra zazpi koloretakoa delako kontu hori ere (edo Newtonen argiaren deskonposaketarena nahi bada) esperientzian oinarritutakoa baino gehiago ikasia dela...

Baina denok berdin ikusten al dugu? Desberdintasun kulturalak

Ikuspuntu fisiologikotik desberdintasunik ez badago ere, denok ez dugu estimulu beraren aurrean erantzun berbera ematen, eta ez naiz gizabanakoaren alderditik begiratzen ari, kulturaletik baizik. Ulertu behar dugu kolorea, funtsean, sentsazioa dela eta horri lotuta dagoela informazioa, errealitatea egituratzeko informazioa. Eta gauzakien berezko ezaugarri fisikoa ez denez, gugandik at ez dagoen sentsazioa denez, hots, abstrakzioa denez, hizkuntza behar du izateko: **hizkuntzarik gabe kolorerik ez!** Eta sentsazioak gizabanakoarenak izanda ere hizkuntza giza taldeari dagokio: beraz, kolore ikuskeraz aritzean testuinguru kulturala ezinbesteko erreferentzia dugu.

Hizkuntza eta pentsaera erlazionatuz egindako lanak aipa zitezkeen, bai eta aldagai horien erlazio sarean kultura ere sartzen dutenak (eta, nola ez, aldagai uztarketa hori ikuspegi ebolutiboaren pean egindako apurkak ere bai). Edonola ere, ikerketak bat datoz, argi eta garbi elementu bakarra ez dela esateaz gain, hizkuntzak duen zalan-tzarik gabeko garrantzia azpimarratzean. Luria-ren liburu ezagunenetakoa baten (1980) aipua ekar daiteke hona adibide gisa: "Kolorearen pertzepzioa ez da independentea hizkuntzaren egitu-

ra lexikoarekiko eta semantikoarekiko".

Kolorearen gaia dela eta, gaur egun hizkuntza batetik beste batera salto samurregia egiten dugulakoan nago, mundu garatua deitzen den honetan, behinik behin. Aspaldikoak dira izadiarekin harreman estuak izan genituen garaiak eta inoiz baino hiritartuagoak garen honetan, globalizazioaren amaraunean kateatuta edo, gertu gertukoak ditugu funtsezko koloreen ohiko parekatzeak: gorri, "rouge", "red", "rojo", "rot".../ berde, "vert", "green", "verde", "grün".../ urdin, "blue", "blue", "azul", "blau".../ zuri, "blanc", "white", "blanco", "wei_"... eta horrela, 'unibertsalak' (mendebaldekoak, mundu garatuarenak) omen diren parametrotan erortzeko arrisku bizian gaude (Preciado, 1977), koloreenerabilera nagusi eta ustez guztiz baliagarria dena ezeren gainetik gailenduz. Ikuskera kartografiko edo etiketatzailea litzateke hau: "Horren arabera, mundua zati askoz osatuta dago eta hizkuntza bakoitzak bere etiketa ipintzen dio zati bakoitzari" (Mühlhäusler, 1994: 12).

Zalantzarik gabe kidetasun horietara mugatzeak txirotu egiten du bertako kulturatik dagoen ikuskera. Eredu zehatza goetara eraman dezakegu gogoa hau: adibidez, zer ulertzen dute eskolatutako gazteek agure ileurdinak entzutean?, akaso "abuelos marchosos con el pelo tintado de azul"?, eta a r d i u r d i n, behi urdin, asto... urdin entzutean?, agian "oveja, vaca, burro... azules"?, eta abelgorri edo behigorri entzutean?, eta kopeta beltz, larrea gorrituta dago, begizuri, artoa urdinduta dago... Edo, gertuko adibide batekin, haurrei propio zuzendutako abesti batetik ateratakoa (Takolo, Pirrutx eta Porrotx-en "Aitona ujuka"), zer ulertzen dute ganaduari urdina eta gorria deitzean? Zenbat (ikasle zein irakasle) dago jabetuta euskal erabileran urdina, esaterako, batik bat Gipuzkoa aldean hedatuta eta gailenduta dagoen "azul" adierazteaz gain (eta alderdi kromatikoari soilik mugatuz, ñabarduretan sartu gabe), "gris", "zuri", "marroi" edota "berde" ere adierazteko

erabilia (izan) dela? (Preciado, 1994). Zenbat dago ohartuta zenbait tokitan "azul" ere erabiltzen dela ("ate azule, kotxe azule") baita bereiztu ere "urdin"etik? Gorriaren esanahia (kromatismoarisoilik lotuta) "rojo-rouge" baino harantzago doa: tabako gorria, goringoa, urre gorritzko bizarra... Edota abereekin erabilia "marroi" adiera ere hartzen duela, zenbait daki? Akaso suge gorria gorria al da?... (eta nahi beste luza daiteke soka hau).

Horrekin batera aipatu beharrekoa da askotan ohiko erabilerak deskribatzea baino sailkatzea bilatzen dela. Horrela aurkituko ditugu, kolore zehaztasunen gainetik ardo gorri, ardo beltz, ardo zuri/ elorri zuri, elorri beltz/ horma zuri, horma beltz/ babarrun beltz, babarrun gorri, babarrun zuri/ ontto gorri, ontto zuri... Kasu horietan kolore hitz bakoitzak oso eremu semantiko zabala hartzen du, aipatutako ustezko kidetasun horrek porrot eginez ("vino rojo, vino negro, vino blanco"!)). Bitxia da, zinez, kultura baten nola ezaugarritzen dituen inguruko fenomenoak edota gauzak eta nola erabiltzen dituen -besteak beste- hitz hauek horretarako: sagarren artean dugu, esaterako, sagar beltza, gordanxuria, musugorri, erneta xuri, erneta beltza, urdanxuri... eta tokian tokiko izendapenak "gorri garratza, moko baltza, sagar zurixe, urdin sagarra..." (Ondarroa, 1984: 19).

Horren harira (eta beste eremutan sartu gabe: gibelurdin, mutxurdin...), animaliak ezaugarritzeko ere amaigabeko zerrenda osa daiteke: saturdin, lepazuri, lepaori, pargorri, muturgorri, buztan gorri... eta interesgarria izaten da egiaztatzea ea erdarazkoen parekoak maila berean ezaugarrituta dauden: "arigorri (arete rubio), buztanbaltza (dorada), arraingorri (perlón), arrainbaltza (borracho, perlón negro), perloi gorri (golondrina)..." (Zubikarai, 1983). Kolore hitz horiek animaliekin (eta bizidunekin, oro har) erabiltzen

direnean, ez dira kolore homogeneo eta zehatzak, inbarduraz beteak baizik; adibide gisa, “miru beltza: lumadi marroi-gorrixka iluna”, edo ‘azul’ adieraren arrastorik ez duen “mirotz urdina: arrak burua eta bizkarra grisa. Hegoak grisak, punta beltz-beltzak eta bi lerro beltz. Emeak bizkarra arre iluna eta hegoetan bi lerro beltz baino gehiago” (Barandiaran/Irazabalbeitia, 1988: 40-41).

Ezin gara gelditu toponimoei erreferentziarik egin gabe, errekak, mendiak, herriak, auzoak, abizenak eta abar osatuz: urbeltz, iturbaz, osin beltz, arriurdineta, lurgorri, mendigorria, arrigorrista, pagozurieta, ategorrieta, txagorritxu, ikazbalzeta, iturri gorri, irabaltza, gorriti, arrigorri, arrigorriaga, mendibeltz, iturzurieta, u rdiñola, iralarueta eta abar.


Kromatikoa baino harantzago doan fenomeno

Ohartzen ez bagara ere, koloreetarako erabili ohi ditugun izendapenek askotan gainditzen dute eremu kromatikoa eta testuinguru askotan erabiltzen ditugu kromatikoak ez diren ezaugarriak adierazteko. Horrela, elurra zurian beltza! diogunean ageri-agerikoa da bi kolore-izenak ez daudela maila berean, ume gorriak ez dira koloreagatik izendatuak izaten, langile zuria ez da hegoafrikar batengandik bereizteko erabiltzen, lana beltz egin ere aurkituko dugu. Adibideetan sartutan, etxe gorria geratu, beltza sakatu, ele zuriko pertsona, negu gorrian egon, haize beltza, irri zurikoa, goiz gorria da oraino, azken beltzean, patrika zuritu, kopeta beltz, istilu gorriak izan, egun gorrian gertatu, mokozuri, alfer gorri bizi, astegun zuri, gose gorri, ohian beltzean, lurra gorritu, izerdi zurikoa izan, muturbeltz (arrotzei), beltzuria egin, gorriak eta bi ikusi... gisa honetako esapideak ez ezagutzea beltza da gero!

Gizarte mailan irmoki finkaturik dugu horrelako erabilera eta euskaldu-

neneguneroko mintzairan eragiten duten gaztelaniazko esapideak ere ugari dira (“chistes verdes”, “novela rosa”, “cine negro”, “humor negro”, “magia negra”, “prensa amarilla”, guda garaiko “los rojos”, “quedarse en blanco”...). Edozein modutan ere, azpimarratzekoa da ikusten ez diren errealitateak ezaugarritzeko zein sarri erabiltzen diren (haize zuria, haize min gorria, haize beltza, min gorri, min zuri, arrisku gorrian egon, ezpain gorrian ibili...). Ezin argiago geratzen da, beraz, koloreak ez diren beste adierak ere badituztela hitz horiek eta Mitxelenak aipatutako adibide polit batek biribil dezake esandakoa: “<Zoramen gorrian geure buruari begira luzaroan biziak baldin bagara>. Oharra: “111, 273. gorrian: ez du hemen kolorea adierazten, ezta mendiren bat gorria dela esaten dugunean esan nahi duguna ere; gaztelaniazko ‘en puro éxtasis’ edo halakoren bat litzake” (Mitxelena, 1972: 69).

Hari horri tiraka, ezin ahaztu betidanik izan dugun erabilera sinbolikoa eta adibiderik ez zaigu faltako, zenbaitetan mendebaldeko sinbologiarekiko alde agerian geratzen dela kontuan hartuta. Horrela zuria garbitasuna, xahutasuna, birjintasuna... adierazteko erabilia da, baina euskaraz hitz honek badu beste esanahirik ere: aipatutako lanerako eskasa den langile zuri, gizon zuri (fidagaitza), asto, zaldi, idi... zuri (nagiak, alperrak -zaldi urdin ere nagikeriaren adierazle izan daiteke-) barnezuri, zakurzuri, sabelzuri (tranparia), elezuri (lausengatzaile), zuritu nahian ibili... Beltza delata, zera aipa daiteke: garai bateko baseritarrek, botere sendagarriak zituelakoan, aker beltz bat izaten zutela kortan artaldea zaintzeko edo katu beltza etxeko zorionaren zaintzaile zela (“katu beltza etxean, txantza ona etxean”)... Gorriaren inguruan ez da adibiderik falta: oilasko lumagorriak edo oilargorriak birilitate handiaren adierazgarri dira, gona gorria amodioa zein lizunaren seinalea... Gorriak, finean, bizitza gartsua eta



grina antsiatua adierazten du, indarraren eta minaren sinboloa da.

Testuinguru honetan, ikaragarri aberatsa da atsotitzek jasotzen duten ikuspegia eta hemen ere kromatismoari atxikitakoak ez dira gutxi (“oilo beltzak arrautz zuria, gezurrak tartean egia”, “lekuan, lekuan ardiak, beltzen artean xuriak”, “gizon bizarbeltz, horri bidea erts / gizon bizargarri, aldara bidetik horri / gizon bizarzurri, tirit horri”, “xuri guztiak ez dira irinak, ez beltz guztiak ikatzak”, “oterrean asto beltza ikusi”, “antxuan zuri, bildotsean gorri, arditan beltz, zer?”, “eguzki zuri, laster euri”, “arrats gorri, bihar eguzki zuri”, “praka beltzean ari zuria”, “zozoak beleari ipurbeltz”...). Baina eremu hau utzita, ezin uka harantzagokoek ere multzo handia osatzen dutela: “gizon ezbarri zuri ta emakume ezbarri beltzetik gorde gagizuz, jauna, orai eta beti”, “alferrak eskuko larrua guri, moltsa zuri, athorra beltz”, “beharrak, mutur beltza”, “iparra baltza danian baltz, gorri danian gorri, fina izan da be, zakarra”, “kalegorrin hamar seme gorri”, “martxoan airea gorri, goizeko elhur berri”, “gizon edarra, bierrien -lanean- zurixe -alfer-”, “ezezagunak erosi dezala gure mando urdiña”, “hilak, begia beltz”, “diru xuria-zilarra, egun beltzentzat”... Horiez gain, badira itxura kromatikoa eta harantzagoko esanahiak uztartuz osotutakoak ere: “ogiarene alboan, otasa beltz; bere beltzean ere, lotsarik ez”, “zilarria xuria,

hatz beltza ondotik”, “obe da aurpegi gorri, ze ez biotza balzki”...

Berebat, gauza bitxirik ere aurki dezakegu beste eremutan, esaterako, gaixotasun batzuen itxura eta hauek sendatzeko osagarrienak kontuan hartzen duen ikuskera; izan ere, gaixotasun batzuek osasunaren galera dakarte, giza kiaren itxura (kolorea) aldatuz: zurbildu, gorritu, horitu, belztu... eta kolore antagonikoen zenbait gauza erabili egiten da osagarri gisa horretarako; adibidez, halako intsektu eta sugeen ziztadak gorritzen duen aldea, gozatzeko asmoz, porru freskoen zuriuneaz igurtzi (Barriola, 1979).

Eta beste kolore hitzekin zer?

Euskarak kolore hiztegi urria duela esan daiteke, ohiko erabilera kolore hitz asko eta asko maileguetatik hartutakoak baitira; oinarritzoei dagokienez, hor ditugu “berde, more, marroi, gris, laranja, arrosa...”, beste hauekin sartu gabe; “teja, crudo, beige, pistacho, hueso, crema, butano...” Horietako askotan eta euskarak berez dituen zenbaitetan ere metonimia dugu oinarri, kolorea izendatzean bide erabilienetarikoa izan dena (gaztaina kolorea, urre kolorea, hauts kolorea...). Baina, zer dela eta ditugu hainbeste maileguzko kolore hitz? Ez al dago euskaraz horrelako koloreak adierazten dituen hitzik? Euskal kulturak murriztuago al dauka kolore mundua? Zergatik mailegatzen dugu kolorea bera? (Preciado, 1996) Galdera zehatzagoetara joz, nola liteke Euskal Herrian hain nagusia den berde kategoria (eta areago iraganeko garaietan, izadiarekin estuki erlazionaturik) adierazteko euskal hitzik ez izatea? (Preciado, 1995).

Toponimoak eta abere motak sailkatzerakoan propio utzi ditut bazterrean miaz agertzen diren beste izendapen batzuk: arrinabarreta, arnabar, sai arre, suge nabar, begi nabar, asto nabar, oilo nabar, goiz nabar, behi arre, katu nabar, idi nabar, igel nabar.... Galde dezakegu erabilera arruntean zein literaturan

oso hedatuta dagoen nabar kolorea zeinekin pareka dezakegun erdarazko adieran? Eta arre kolorearekin nola jokatu? Eta ubel-ekin? Eta tokian tokiko beste hauekin: laru, beilegi, uger, uher, amuzko...? Eta, egokitasunari arreta gehiegirik jarri gabe, luza daitezkeen zerrendarekin: hits, beluri, belio, oztin, mora...? Eta ez garasartuko hitz konposatuak diren urdinarre, urdinarre, gorbeltz... edota amai gabeko zerrenda osatzen duten hitz eratorriekin: gorrasta, garrantz, gorraile, horasta, zurikail...

Azpimarratu nahi dut, beraz, beste kolore hitzik ere badagoela; dena den, era orokorrean zera esan dezakegu: edo aipatutakoen beste forma batzuk direla (orlegi, musker); edo esanahia ez datorrela bat kolore zehatz batekin eta bereziki bizidunei atxikita agertzen direla (nabar); edo ez daudela erabat hedatuta, zonalde batekoak direla baikik (musker); edo kolorea baino itxura orokorra hartzen dela kontuan (beluri “eguzkia beluritu zaigu / se nos ha palidificado el sol”. Azkue, -1906-1969).

Baina horiekin gehiago sartu gabe, ez legoke gaizki aintzat hartzea oinarritzko euskal hitzen eta erdarazkoen arteko kidetasun erabatekoa zalantzan jartzen duten beste datu batzuk ere: hori dela eta, Euskal Herrian beste bi erabilera ezagutzen dira kategoria horretarako: beilegi eta laru. Leku batzuetan azken hauek dira erabiltzen diren forma bakarrak: Arratia aldean lehenengoa eta laru, berriz, Arrasate aldean. Berebat, azpimarra daiteke *horiak gorriarekiko* duen menpekotasuna, adibideek agerian uzten dutenez: “arrolte gorringoa, napar ardi mutur gorriak, ipar-gizon bilo gorriak” (Larza-bal, 1975: 402), “tabako gorria”, edo gure hizkuntzari buruzko hiztegiarik zaharreneatik ateratako hau: “Ruuja cosa: gauçoria” (Landuccio, -1562-1958: 187).

Halaber, urdin hitza nagusiki “azul, bleu” adierazteko erabili bada ere, ezin da hartu esanahi bakarrekotzat –lehenago azpimarratu dudana bezala–, asko baitira dituen adierak: gaztelaniazko “gris” eta “cano”, “pardo”,

edota kontrajarriztat jo daitezkeen “suscio” eta “fina, tersa, blanca” esanahiak ere bai, arloaren arabera, esanahi bat edo bestea hartuz: “Urdiria ganaduetan zuri ta arreuneak daukazana da; gizonetan azal-urdiria zuria da; ule-urdiria, ule-zuria” (Azkue, -1906-1969). Bestalde, gaztelaniazko “azul” koloreari buruz ere gehiago esan dezakegu: kolore hori adierazteko beste era bat ere baze goen (erronkarietaz), R. M^a de Azkuek jaso zuenez: “Erronkarietazko dundu hitzak indar gehiagorekin adierazten du kolore hau (urdiria)”.

Landuccioren kasu eginez gero, galdetzekoa da hiztegia idatzi zuen garaian (Arabako euskalkian eta XVI. mendean) gaztelaniazko “azul” adierazteko erabiltzen ote zen *urdirin*, ez baita horrelakorik agertzen, eta bai ordea “*azul*”: “Azul cosa = gauça azul” (69 or.). “Urdin” hitza erabiltzen den besteetan, “cano” (69 eta 78 orr.), “moho” (156 or.) edo “pardo” (167 or.) adierazlea agertzen da.

Badago, beraz, zer hausnartua, eta ildo horretatik, maileguzko kolore hitzen bi ezaugarri azpimarratu nahi ditut, hitz euskaldunei egotzi ezin zaizkienak: kolorea bereziki adierazten dutela eta inguruetakozko hizkuntzekiko dagoen kidetasuna. Jatorriz hitz euskaldunak direnak, ordea, ez dira mugatzen kolorea adieraztera eta esanahi ugaritakoak dira.

Eskolaren garrantzia eta zenbait galdera

Egun, ikuspegi zabal batetik, halako balio unibertsaldun itxurarekin agertzen diren joera uniformatzaileak nagusi dira gure gizartean, eta beste ezertan baino argiago, komunikazioaren eta informazioaren eremuetan ikus daiteke pentsamolde hori. Aldez edo moldez, denok globalizazioaren amaunean gaude eta koloreak irakaskuntzan duen tratamendua ikusi besterik ez dago aipaturiko joera nagusiaren adierazle dela ohartzeko.

“Egoera honetan, erakunde bezala eskolak jokatzen duen papera nabarmendu nahi dut, erakusten dena ho-

mogoneitatearen parametroetatik ez baita aske gelditzen. Ilustrazio garaitik mamitzen joan den ideia zera da: ikasketaren eta ikastendaren gune nagusia/bakarra eskola dela eta, interes batzuk tarteko, gaurdaino iritsi dela esan daiteke. Hori eskolatuek zein ez eskolatuek barneratu dute, eta beste ezagupen motak gutxitzea ekarri izan du, eskola ezagutzak lortzen diren leku bakartzat edota nagusitzat hartzen baita” (Preciado, 1997: 95).

Hautemate prozesuaren inguruko azterketek agerian jarri dute testuinguru atzemateko orduan ikasitakoak eta ezagututakoak nola eragiten duen gure hautematea. Ildo horretatik, bereziki egungo gizakiongan eskolatzeak (inplikatzeko duenak) izugarriko eragina duela azpimarratu nahi dut, batez ere (adina dela eta) gazteengan. Gauzak ikasi dugunaren arabera 'ikusteko' joera dugu eta ondorioz, izaten ditugun sententziak ezagututako eredu baten arabera sailkatzen ditugu. Kolorearekin bereziki, ikasten denak etxean edota inguru hurbilean entzundakoari lehenetsuna hartzen dio, esperientzia subjektiboen gainetik estandarizazio gailentzen baita, eta horrela, jasotzen diren ezagutzak eskolatuta dauden gazteen esperientzien osagarri izan beharrean, zenbait kasutan liskarrak, gatazkak sortzen dituzte (Preciado, 1993).

Panorama honetan, galdetzekoa da kolore fenomenoaren hautemateko garaian ea gure eskoletako haurrek ez ote duten etenik jasaten euren aurreko belaunaldiek: egoki ulertzen al dituzte koloredun itxurari egotzitako esapideak: a rdi urdin, sugedorri, katu nabar...? Gure aurrekoen ikuskerari eusten al diote inguruko gauzak ezagarrizterakoan: arriurdineta, lur gorri, gibelduridin, larrea gorrituta dago, urtxuri...? (Egoki) ulertzen al dute kromatismoari zuzendutakoak ez diren etxea gorri geratu, langile zuri, beltza sakatu, zoramen gorrian egon... eta gisako esapideak? Euskaraz hitz egitean, euskal ikuskerari islatzen al dugu ala baikuz eta abarkaz jantzitako erdararena? Ohar gaitzen

hitzen atzetik errealitatea egituratzeko era dagoela, arazoa ez baitago koloreak izendatze hutsean, askoz harantzago baitoa: funtsean, kolore fenomenoaren berezko hautematea baztertuz, mendebaldean nagusi den eske ma erabiltzen da eta izenekin batera kontzeptuak eta errealitatea egituratzeko era bat geureganatzen ari gara, geurea ahanzturan utziz. Jorge Oteizak (izen ospetsuen katea eginez) ildo beretik hala dio: "Cassirer-ek dioen bezala Humboldt aipatzen duenean "hizkuntzen arteko desberdintasun erreala ez da soinu edo zeinuen desberdintasuna, ikuspegi kosmikoen eta munduaren ikuskeren desberdintasuna baizik" (-1963-1984: 49).

Koloreak hautematerakoan kulturak duen papera, zalantzarik gabe, garrantzi handikoa da, eta orain arte azaldutakoan beste gai batzuk jorratu gabe gelditu badira ere (ingurumenak duen garrantzia, bilakaera kulturala... edota zeharka azaldutako izadian estuki erlazio naturik bizitzetik industrializatutako gizarte honetara igarotzea, telebistaren eta bestelakoen eragina...), edozein modutan, agerikoa da mendebaldeko era nagusi horren eta geurearen artean desegokitasunak azaltzen direla koloreak ikusteko, izendatzeko, ulertzeko. Erabilera eremuak daude, jakina, baina azken finean, euskal kulturaren murgilduz gero, erredukzionismo sinplistan ezin gara erori: "ba al dago gorri hitzak kolore mota bat soilik adierazten duela esan go duenik?" (Preciado, 92: 85)

Joera nagusiaren indarra ukatu gabe, hor dagoela jakinda, jakin ere jakin behar dugu ikuspegi bateratu nagusi horrek (akaso homologazio konplexuak jota) itsu gaitzakeela eta geurea bezalako errealitate ukatuak, isilaraziak edota (zoritarrez) oharkabeak ahanzturan gelditu litezkeela (betiko ote?). ●

BIBLIOGRAFIA

- AZKUE, R. M.: Diccionario Vasco - Español - Francés. Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1906-1969.

- BARANDIARAN, M. J.; IRAZABALBEITIA, I.: "Kantauriko mendiak, ezagutu beharreko parajea", *in* Elhuyar, 17 (1988), 36-41.

- BARRIOLA, I. M.: *Medicina popular en el País Vasco*, Ed. Vascas, Donostia, 1979.

- ELHUYAR-ELKAR: *Euskal hiztegi moderno*, Elhuyar kultur elkarte/Elkar, S.L., Usurbil, Donostia, 1994.

- GAGE, J.: *Color y cultura*, Siruela, Madril, 1993.

- KÜPPERS, H.: *Fundamentos de la teoría de los colores*, Gustavo Gili, Bartzelona, 1980.

- LANDUCCIO, N.: *Dictionarium linguae cantabrigiae*, Seminario "Julio de Urquijo", Donostia, 1562-1958.

- LARZABAL, P.: "Euskaldunak eta koloreak", *in* Euskera XX, (1975), 401-405.

- LERSCH, P.: *La estructura de la personalidad*, Scientia, Bartzelona, 1971.

- LURIA: *Los procesos cognitivos, Fontanella*, Bartzelona, 1980.

- MITXELENA, K.: *Mitxelaren idazlan hautatuak* (P. Altunak prestatua), Mensajero, Bilbo, 1972.

- MÜHLHÄUSLER, P.: "Salba dezagun Babel", *in* Unescoren albistaria, 94 (1994), 10-15.

- ONDARROA: "Gure errian artzen ziran sagarren izenak", *in* Ondarroa, 19 (1984).

- OTEIZA, J.: *Quosque tandem...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*, Hordago, 1963-1984.

- PRECIADO, Tx.: "Koloreari buruzko irakaskuntzaren egokitasuna Euskalerriko testuinguruan", *in* Tantak, 8 (1992), EHUko Argitarapen Zerbitzua, 19-45.

- PRECIADO, Tx.: "Bizitakoak versus ikasitakoak: horia eta urdina gatazka honen adibideak", *in* Tantak 9 (1993), EHUko Argitarapen Zerbitzua, 103-120.

- PRECIADO, Tx.: "Zer da urdin?", *in* Zehar, 26 (1994), Artelekuko aldizkaria, 9-11.

- PRECIADO, Tx.: "Zergatik berde kategoriatik adierazteko euskal hitz jatorriak ez?", *in* Jakin, 87 (1995), 77-100.

- PRECIADO, Tx.: "Euskaldunak kolorerik ez?", *in* Jakin 92 (1996), 75-82.

- PRECIADO, Tx.: "Unibertsalismoaren arropadalan", *in* Revista de Psicodidáctica, 3 (1997), 93-112.

- RANCILLAC, B.: *Ver y comprender la pintura*, Ediciones del Prado, Madril, 1992.

- ZAPIRAIN, L. eta beste: "Kolorearen pertzepzioa: ikasgelan duen eragina", *in* Hik Hasi, 75 (2003), 30-34.

- ZUBIKARAI, A.: "Arrain eta itxaski batzuen izenak", *in* Ondarroa (1983), 49-57.

kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Didaktika integratzailearen ekarpenak



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa

Euskal Herriko ikastetxeetan, orain arte, ama hizkuntzat euskara, frantsesa edo gaztelania duten haurrek izan ditugu batik bat. Azken hamarkadetan, euskal irakasleek lan izugarria egin dute ikasle horiek euskalduntzen.

Gaur egun, aldiz, ama hizkuntzat gaztelania edo frantsesa ez beste hizkuntza bat edo batzuk dituzten haur erdaldunekin topo egiten ari gara. Irakasleek ez dituzte ezagutzen hizkuntza horiek; eta, jatorri, kultura nahiz erlijio askotarikoak izateaz gain, besteak bes-

te, egoera sozioekonomiko kaxkar bateko eta immigrazio mugikor bateko partaide dira; hau da, ez dira lurralde edo komunitate batean urte luzeetarako geratzen, leku batetik bestera dabilta.

Arrazoi horiek bide, ikasle erdaldun horien euskalduntzeak (bai linguistikoki, bai kulturalki) hainbat sektoreen edota profesionalen elkarlana eskatzen du. Orain arte, haur erdaldunei euskara irakasteko orduan, bereziki, irakasleen eta hizkuntzalarien lana nabarmendu da. Gizarte laguntzaileen, psikopedagogoen eta horrelakoen laguntza ere hor zegoen, baina eskolaz kanpoko zerbitzuak ziren. Orain, aldiz, arestian aipatu dugunez, egoera zabalagoa da eta hizkuntzalarien, pedagogoen, psikopedagogoen, itzultzaileen, gizarte laguntzaileen, ikerlariren eta abarren arteko koordinazioa beharrezko da.

Datuek adierazten dutenez (Eusko Jaurlaritza, 2002), azken urteotan EAEn ikasle etorkinen matrikulazio tasa bikoiztu egin da. 1995-1996 ikasturtean 1.942 ikasle etorkin zeuden, 2001-2002 ikasturtean, aldiz, 5.415 zeuden. Bestalde, horien matrikulazio tasa azken urteetan % 40 ari da urtero igotzen, eta gaur egun, EAEko ikasle guztien % 1,8 dira.

Bilakaera hori dela eta, nahiz eta oraindik kopurua handia ez izan, urte tik urtera bikoizten doanez, euskal irakaskuntzaren hainbat sektorek eta gizarteko eragileek hainbat jardunaldi, hitzaldi, mintegi... martxan jarri berri dituzte, egoera horri ahalik eta ongien erantzuteko gogoz.

Sektore guztiak bat datoz memento honetan haur etorkinen eskolatzeari begira kezka nagusia zein den adosteko orduan: haur etorkinei nola irakatsi gure hizkuntza ahalik eta denbora gutxienean.

Euskal Herrian bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan jada bide bat ongi jorratua dugu (euskara gaztelaniaz mintzo diren haurrei ahalik eta lasterren irakastea), eta horko esperientzia baliagarri gerta dakiguke errealitate berri horri aurre egiteko. Baina, idatzi honen hasieran esan dugun legez, oraingo honetan haur horiek aurkitzen dituzten zailtasun ugariaren artean, hizkuntzarenaz gain, kulturarena, erlijioarena, egoera ekonomiko nahiz sozial kaxkarrarena eta abar daude; beraz, nahiz eta kezka nagusia hizkuntzarena izan, ezin dugu gure arreta guztia hor jarri. Arrazonamendu honen adibide dugu, esaterako, haur iberoamerikarren kasua. EAEko ikasle etorkinen ia erdiak

¹ Ikasle horien ia erdia, % 48, iberoamerikarra da; % 23 afrikarra; % 21 europarra; % 6 asiarra; eta % 3 beste lurralde batzuetakoa.

iberoamerikarrak dira (Eusko Jaurlaritza, 2002). Gure ikastetxeetara heltzen direnean aurkituko luketen jauzi bakarra hizkuntzarena balitz, hauen etorrek ez liguke kezka handirik sortuko, EAEn hainbat urte baikabiltza gaztelania ama hizkuntzatzat duten haurrak euskalduntzen. Baina Victoria Mendozak (Mendoza, Victoria, 2002), kultura anitzetako ADISKIDETUAK elkarteko lehendakariak, behin eta berriro dioen legez, Iberoamerikatik datozen haurrek gehienetan aurkitzen duten jauzirik handiena kultura arlokoa da².

Haur etorkinak gure ikastetxeetara heltzen direnean, jabetzen dira bai beraien hizkuntza eta baita kultura ere ez direla aintzat hartzen eskolako eguneroko ekintzetan, eta horrek jauzia are handiagoa egiten du. Jauzi horrek eragin zuzena du, besteak beste, gure hizkuntzaren ikasketan, beraien integrazio sozialean, emaitza akademikoetan eta egoera psikologikoan (Dasen, P., 2001, Berthelie, 1993). Beraz, argi dago, integrazio kulturalaren alorra ere ezin dugula alde batera utzi.

Beste herrialde batzuetan, aldiz, aspalditik ari dira gai hau lantzen, bereziki, etorkin ugari dituzten lurraldeetan. Esaterako, hor ditugu aitzindarien artean Frantzia, Suitza edota Erresuma Batua. Herrialde horietan, didaktika integratzailea bideratu nahi duten hainbat proiektu daude martxan.

Didaktika integratzaileak haur etor-

kinen integrazio kulturala nahiz linguistikoa bideratu nahi ditu. Horretarako, besteak beste, ikasgelako haur guztiei kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko hezkuntza zabala eskaintzen zaie, aniztasun horren aurrean haur guztiek (bai etorkinek eta bai bertakoek) jarrera positiboa izan dezaten.

Oro har, denbora luzerako proiektu pedagogikoak izaten dira; ez dira zuzenean hizkuntzen irakaskuntzaz arduratzen; eta, eskolako ekintzak edo ikasgelan burutzen diren jarduerak (ipuinak irakurri, abestiak ikasi, musika entzun...) egiteko orduan, ikasgelako haur guztien kultura eta hizkuntzak errespetatzen eta kontuan hartzen dira, nahiz eta hizkuntza edo kultura gutxituak izan.

Ikastetxeko jardueretan haur etorkinen gurasoek ere parte hartzen dute. Izan ere, uste da ikastetxeetako hizkuntza eta kultura aniztasunari erantzun egokia emateko ezinbestekoa dela guraso denen arteko elkarlana.

Bestetik, sarri askotan, beti ez esatearren, irakasleak ez daude prest errealtate berri horri aurre egiteko, eta beraz, didaktika integratzailea bideratu nahi duten proiektuek irakasleentzako ikastaro bereziak eskaintzen dituzte.

Jarrera positiboak sortaraziz

Orain arte esandakoaz gain, bereziki *Language Awareness* (Hawkins, E: 1987) mugimenduaren ildotik doazen proiektuek (EVLANG -**hik hasi**, 79-, EOLE -**hik hasi**, 77-, JALING) kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean ikasleei jarrera, gaitasun eta jakintza positiboa sorrarazi nahi diete. Jarrera positiboa kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean eta hizkuntzak ikasteko orduan. Gaitasun positiboa hizkuntzaren ikaskuntzan laguntzen duten gaitasun metalinguistikoaren eta kognitiboaren lanketan. Eta jakintza positiboa munduan hizkuntzen inguruan bizi diren gai errealean aurrean (migrazioen



eragina hizkuntzan, lurraldeetako errealtate linguistikoa, hizkuntza gutxituak munduan zehar, hizkuntza vs. kultura...). Proiektu horiek euskarri didaktikoak sortzen eta beraien ikasgeletan esperimintatzen dituzte, kultura eta hizkuntza aniztasuna curriculumeko ikasgai guztietan landuz. Horien prestakuntzan Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko irakasleek hartzen dute parte eta kontuan izaten da, bai

Didaktika integratzaileak haur etorkinen integrazio kulturala nahiz linguistikoa bideratu nahi ditu. Ez da zuzenean hizkuntzen irakaskuntzaz arduratzen, baina 2. hizkuntzaren ikaskuntzan inplikaturik dauden hainbat arlo jorratzen ditu



² Kontuan izan behar da haur etorkinen gehiengoak A ereduaren matrikulatzen dela. 2001-2002 ikasturteko EAEko datuak hauek dira: A ereduaren % 65; B ereduaren % 23; eta D ereduaren % 12.



ikasgelako haurren kultur eta hizkuntza aniztasuna, bai inguruan bizi duten errealitate kultural zein linguistikoa.

Didaktika integratzailea bideratu nahi duten proiektuak martxan jarri dituzten ikastetxe guztietan, esperientzia oso positibotzat jo izan da, ikastetxe orotan landu beharrekotzat –etorkinak izan edo ez–. Ikastetxe horiek, bereziki, hiru lorpen nabarmentzen dituzte:

1. Ikasle etorkinen jarrera aldaketa: ikasle etorkinek nota hobekiak ateratzen dituzte eta ikasgelan askoz gehiago parte hartzen dute. Ez dira gutxietsiak edo desberdinak sentitzen. Beraien jatorria ezagutu ondoren harro sentitzen dira, denek errespetuz eta berdintasunean tratatzen dituztela ikusten baitute (proiektua martxan jarri aurretik ez bezala). Proiektu integratzaileetan lehen pertsona parte hartu duten haur etorkinen esanetan, didaktika integratzaileak pertsona legez indartsuago egin ditu, eta sozialki integratzerako orduan ere autoestimua igo die.

2. Bertakoen eta haur etorkinen arteko harremanen hobekuntza nabaria.

3. Guraso etorkinen interes handiagoa eskolarekiko.

Guretzat ere baliagarria da

Orain artekoa irakurri ostean, irakurlearen batek galde dezake: baina honek guztiak Euskal Herriaren kasurako balio ote du? Eta bereziki, haur etorkinei euskara irakasteko balio al dute mota honetako proiektuak?

Lehenengo galderari erantzuteko gogoz, egia da bai, Euskal Herriko egoera, esaterako, Ingalaterrarekin edo

Austriarekin konparatzen badugu, errealitate linguistikoari dagokionez behintzat, desberdina dela; Euskal Herria elebiduna baita eta, hizkuntzetako bat, euskara, hizkuntza gutxitua baita. Hala ere, adibidez, hor dugu Katalunian kasua. Katalunia ere herrialde elebiduna da, eta hizkuntzetako bat, katalana, hizkuntza gutxitua da. Kataluniak bai EVLANG proiektuan, bai JALINGen parte hartu du, eta proiektu horien bertako arduradunen hitzetan, lortu diren emaitzak oso positiboak izan dira, bai integrazio kulturalari eta bai linguistikoari dagokionez. Jakinekua da Kataluniako biztanleriaren elebitasun tasa askoz altuagoa dela Euskal Herrikoa baino, eta horrek gauzak zaildu egiten dituela haur etorkinak Euskal Herrian linguistikoki zein kulturalki integratzeko orduan. Baina kontuak kontu, gure egoera linguistikoaren antzekoa bizi duten herrialdeetan didaktika integratzailea bideratu nahi duten proiektuak oso positibotzat jo baldin badira –haur etorkinen integrazio kulturalari begira besterik ez bada ere–, guk ere, kontuan behintzat, hartu beharko genituzke.

Haur etorkinei euskara irakasteko orduan didaktika integratzailea bideratu nahi duten proiektuak lagungarri ote diren edo ez galderari dagokionez, guk baietz esango genuke. Izan ere, mota honetako proiektu askotan –bereziki “Language Awareness” mugimendua ren ildotik doazenak–, hizkuntzaren alorrean, besteak beste, hizkuntza desberdinen arteko berdintasunak eta desberdintasunak, familia bereko hizkuntzak, jatorri bera duten hitzak, hizkun-

tza gutxituak... ezagutzeaz eta era sinple batean aztertzeaz gain, ikasgelan burutzen diren ekintzetan gelako haur guztien ama hizkuntzak kontuan hartzen saiatzen dira. Horrela, hizkuntzaren alorrari begira behintzat, beste helburu askoren artean, honako bi hauek lortzen dira: hizkuntza berri bat ikastea errazago izatea haur guztientzat eta ikasle guztiak ikasle guztien edo gehienen ama hizkuntzan oinarritzko hitz nahiz esaldi batzuk jakitea.

Kontuak kontu, egia da bai, proiektu hauek zuzenean ez direla arduratzen hizkuntzen irakaskuntzaz. Baina bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan inplikaturik dauden hainbat arlo, komunikatiboa, soziala, emozionala eta auto-irudia, ongi asko jorrotzen dituzte, eta goan izan behar dugu, sarri askotan, bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan alde horiek indar gehiago dutela, adibidez, material didaktiko ona izateak baino. (Gebhard, J.G & Oprandy, R., 1999).

Gure ustez, beraz, mota honetako proiektuetatik badugu zer ikasirik, eta egokitzapenak eginez, baliagarri gerta dakizkiguke gure gizarteak behar duen kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan lantzeko.

Hala ere, argi dago gure herrian fenomeno berria dela haur etorkinen etorrera gero eta handiago hau, eta horrek, didaktika integratzaileak eskain diezazkigukeen laguntzeaz gain, erantzun on bat emateko beste hainbat ikerlan eskatzen dituela; esaterako, giro euskaldunetara zein erdaldunetara heldzen diren haurren euskalduntze prozesuaren datu enpirikoak, material didaktiko egokia sortzea, ikasgeletan haur horiekin zer gertatzen den zehazki ikustea... ●

OHARRA: *artikulu hau 2003ko azaroan EHU-n Itziar Idiazabal zuzendari nuela doktoretzako ikerlan legez aurkeztu nituen lanetako baten laburpena da. Lan hau ikusi edota gai honen inguruko informazio gehiago nahi lukeenak, edota mota honetako proiektuetan erabiltzen den material didaktikoari begiratu bat eman nahi liokeenak, nirekin harremanetan jartzea baino ez dauka.*

Hitzaldiak

<p>Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen</p> <p>HITZALDIAK</p>	<p>Noiz: 2004ko maiatzaren 27tik 28ra Informazioa: bilingbr@vub.ac.be</p>	<p>Noiz: 2004ko maiatzaren 26tik 28ra Informazioa: www.taal.uji.es</p>
<p>∖ II. Mercator International Symposium Non: TARRAGONA Noiz: 2004ko otsailaren 27tik 28ra Informazioa: mercator@ciemen.org</p>	<p>∖ Second Symposium on Intercultural, Cognitive and Social Pragmatics Non: SEVILLA Noiz: 2004ko maiatzaren 26tik 28ra Informazioa: mpadilla@siff.us.es</p>	<p>∖ 7th International Conference of the Association for Language Awareness Non: LLEIDA Noiz: 2004ko uztailearen 19tik 21ra Informazioa: ala2004@dal.udl.es</p>
<p>∖ Language, Attitudes and Education in Multilingual cities Non: BRUSELA</p>	<p>∖ I. Congreso Internacional TIC y Autonomia Aplicadas al Aprendizaje de las Lenguas Non: CASTELLON</p>	

Irakurleen txokoa

Haur etorkinen integrazio linguistiko/kulturalari begira dauden material didaktikoen trukaketa dinamika bat egin nahi da

Euskal Herriko berritzeguneetan, ikastetxeetan, euskaltegietan eta abarretan haur etorkinen integrazio linguistiko/kulturalari begira dauden material didaktikoen eta jolasen zerrenda bat egin nahi da, denok jakin dezagun Euskal Herrian zer dagoen jada egina eta zer ez.

Zuk material didaktikorik baldin baduzu, mesedez, jarri nirekin harremanetan (itziaramayo@msn.com), esanez zer duzun eta zer euskara mailako haur etorkinentzat den. PARTE HAR EZAZUE, DENON HOBERAKO DA ETA!

Txoko honetan galderak egiteko aukera luzatzen dizugu

Kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak badituzu, idatziezaguzu bi hauetakoren batera: itziaramayo@msn.com edo aldizkaria@hikhasi.com Hartu-emanetarako bide honekin dauzkagun kezkek denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaitetz!

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzera eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Galdera planteatzen dutenen antzeko esperientziarik izan baduzu eta proposamenik, aholkurik edo iradokizunik baldin baduzu, erantzun iezaiezu, eskertuko dizute eta!

Hezkuntza eztabaida estatu frantsesean

Eztabaidaren aurkezpena

Lehenbizi egungo eskola denaren balantzea egingo litzateke 1989ko Orientazio Legetik abiatuta, ondoren datozen 10-15 urtetarako izango diren balizko ildo nagusiak erabakializateko.

Eztabaidaren antolaketa

2003ko azaroaren 17tik 2004ko urtarrilaren 17ra bilera irekiak antolatuko dira, bai azpi departamenduen esparruan, bai ikastetxeetan eta irakaskuntzaren lehenengo mailako zirkunskripzioetan.

Eztabaidagune horietara ahalik eta pertsona gehien erakartzea da xedea. Ez dago, beraz, hezkuntza sistemari soilik legokion barruko eztabaidarik, ezta sistemaren eragileei erreserbatu-takorik ere.

Eztabaidaren arak

Hiru fase izango ditu proiektuak:

- * Eztabaida publikoa
- * Orientazio Lege baten proiektua
- * Parlamentuko aurkezpena

Batzordeak

Eskolaren etorkizunerako eztabaidaren batzordeak bi helburu ditu: alde batetik, 2003ko neguko eztabaida nazionala bultzatzea eta laburbiltzea 2004ko martxorako, eta bestetik datozen 15 urtetarako hezkuntza sistemaren garapen ildoak jasoko dituen txostena egitea 2004ko irailerako.

Lau konpromiso eztabaidarako

1.- Eztabaida bat ekintzarako

Errepublikako presidentek eta Lehen Ministroak hala nahita, eztabaida diagnostiko bateratu batera bideratuta da biharko eskola eraikitze aldera. Horren emaitza Gobernuak 2004aren amaierarako Parlamentura eramango duen lege proiektuan burutuko da, hala nola neurri zehatz batzuetan.

2.- Denekin eta denentzako eztabaida

Denak, hiritar, guraso, ikasle, hezkuntza nazionalako langileria oro, iritzia ematera gonbidatzen dira:

* Herrietan antolatuko diren bilere-tako batera joanez edota gaurtik 2004ko otsaila bitartean eskoletan izango diren etara.

* Edo bestela 2004ko iraila bitartean web gunean ekarpenak eginez eta eztabaidetan parte hartuz.

3.- Eztabaidaren gardentasuna

Eztabaida eta ekarpen guztien laburpenak web gunean emango dira argitara, edozeinek izango duelarik haiek ezagutzeko modua.

4.- Batzorde independentea

Eskolaren etorkizunerako eztabaida nazionalaren batzordea Ikerketa, Gazteria eta Hezkuntza Nazionalako Ministeritzak bultzatu du, baina independenteki burutuko du bere egitekoa.

Gogoetabaidak

Eskolaren inguruan antolatzen diren bilera publikoek etorkizuneko gogoeta bat egitera gonbidatzen du:

* Zer-nolako eskola nahi dugu datozen 15 urtetarako, eta nola erdietsi hori?

Eztabaida erraztu eta elikatzeko, batzordeak parte-hartzaile guztiei gai batzuen zerrenda proposatzen die, gogoeta beharrezkoa baita posible eta komenigarri diren garapen ildoak definitzeko. Gai denak eztabaidatzea ezinezkoa denez derrigorrezko epe mugatu horretan, eztabaiden antolatzaileek eta dinamizatzaileek 22 gai horietako batzuk aukeratuko dituzte bileretan. Galdera horiek eztabaida nazionalari ekiteko 22 era desberdin eskaintzen dituzte.

1.- Zein dira eskola errepublikarren balioak eta zer egin gizarteak onar/beregana ditzan?

2.- Zein izan beharko luke eskolaren eginkizunak Europan eta datozen hamarkadetarako?

3.- Zein berdintasunetara jo beharko luke eskolak?

4.- Beharrezkoa al da gazteentzako eta helduentzako hezkuntza banatzea eta lehenetsuna ematea lan munduari?

5.- Zer ezagupenezko, gaitasuneko eta jokabidezko arau menderatu beharko litzukete ikasleek derrigorrezko hezkuntzaren maila bakoitzaren amaieran?

6.- Nola egokitu beharko litzateke eskola ikasleen aniztasunera?

7.- Nola hobetu Lanbide Heziketaren ezagutza eta antolaketa?

8.- Nola motibatu eta lan eginarazi ikasleei era eraginkorrean?

9.- Zein behar dira izan ikasleen ebaluazioen, noten eta azterketen funtzioak eta ereduak?

10.- Nola antolatu eta hobetu ikasleen orientabidea?

11.- Nola prestatu eta antolatu goi mailako ikasketetarako sarrera?

12.- Nola lagun dezakete gurasoek eta eskolaz kanpoko eragileek ikasleek eskolan arrakasta izan dezaten?

13.- Nola jokatu zailtasun handiko ikasleekin?

14.- Nola eskolatu urritasun handiak edo gaixotasun larriak dituzten ikasleak?

15.- Nola jardun eraginkorki indarkeriaren eta bortxakerien aurka?

16.- Nolako harremana beharko litzateke hezkuntza komunitateko kideen artean, bereziki, gurasoen eta irakasleen artean, eta irakasleen eta ikasleen artean?

17.- Nola hobetu ikasleen eskolako bizi kalitatea?

18.- Hezkuntzaren esparruan, nola definitu eta banatu estatuaren eta lurraldetako kolektiboen arteko ardurak eta rolak?

19.- Beharrezkoa al da ikastetxeei autonomia gehiago ematea eta horrekin batera ebaluazioa egitea?

20.- Nola hobetu beharko litzateke eskolak dituen baliabideen erabilera?

21.- Berdefinitu beharko ote liriteke eskolaren funtzioak?

22.- Nola prestatu, aukeratu eta ebaluatu irakasleak eta nola hobetu beren prestakuntzarako ikasketak?

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.




Berriak abendua

Argitalpenak



Multimedia bilduma
Egile askoren artean
IBAZABAL

Bildumak sei CD-ROMetan istorio ezberdinak jasotzen ditu, ahotsez, animazioz, elkarreraginez, hots efektuz edota musikaz kontatuta. Horri esker askoz errazagoa da irakurketa eta ulermena. Haur, gazte eta helduentzat badira irakurgaiak; CD-ROM bakoitzak zehazten du zein adini zuzendua den. Pertsona elbarrientzat egokitutako tituluak dauzka •



Anton Kaiku
Koldo Izagirre
ELKAR

Irakurtzen lehen pausoak ematen ari direnei zuzendua dago *Batela Sailko* ipuin hau. Anton Kaikuri euskaldunen herrira etorrita gertatutakoak kontatzen ditu. Entzuten duen guztia sinetsi eta agintzen dioten huraxe egiten du, baina ostikoka hartzen dute bazterretan. Zergatik haserretzen ote zaizkio horrela euskaldunak? Zer giza-je xelebrea, euskaldun jende hau! •



Sugea lilipean
Asisko Urmeneta
DESCLÉE

Kurru Kurru Kurru. Hegaztiak le-
rro lerro geziak marrazten dituzte zero
zolan. Eta geziok etengabe pasatzen a-
ri dira gure buruen gainetik. Gure ehiz-
tariak prestaketa lanetan dauzkagu
hegaztiei jarraitzeko: larru, makil, aiz-
kora, guztiak prest dituzte.

-Eta nora zoaz? -galdetu diot Urga-
ri.

-Mamuthen atzetik... •



**Nola zuzendu
andereño gaizto bat**
Miren Agur Meabe
GILTA

“Andereño berria ezzait gustatzen. Barre gutxi egiten du, begirakune zorroztak botatzen ditu eta, gainera, mantal grisa darabil”. Irakasleen eta ikasleen harremanen ikuspegi barre-garri eta samurra ematen du ipuinak. Sei urtetik aurrerakoei zuzendua da •



Kuxkuxero press
Pako Aristi
EREIN

Aitonaren ordenagailuan kuxkuxe-
atzen hasi dira Enara eta Mireia. “Albis-
teak” jartzen duen karpetan klikatu, eta
hantxe agertu dira, egun hartarako aito-
nak aukeratu eta idatzi dituen albiste
guztiak. Pantailaren bidez, kazetaritza-
ren tripatan sartzeko abentura hasiko
da hortik aurrera. Hamaika urtetik au-
rrerako kuxkuxeroentzat espreski ida-
tzia da •



**Lehen sorospenak
eta uretako salbamendua**
Edurne Lizarazu
Lizar Irazusta
DAKIT

Lehen Sorospenei buruz euskaraz
idazten den lehen liburua da hau. Ira-
kaskuntza munduari begira eginaga-
tik, edozein irakurlerentzat baliagarria
da. Istripu edo ezbehar bakoitzaren au-
rrean zer egin azaltzen du, koloretako
400 argazki baino gehiagorekin lagun-
duta •



EHBek nazio manifestaldia antolatuko abenduaren 20rako Iruñean

Espainiar eta frantziar estatuak hezkuntza arloan burutzen ari diren berrantolaketa eta hartzen ari diren erabakien aurrean, 200 sinatzaileen ordezkariak azaroaren 8an batzarra burutu zuten EHUko Donostiako Campus-ean. Bertan, Durangoko azokarako 1.000 sinatzaile lortzea eta **abenduaren 20an Iruñean manifestaldia** egitea erabaki zuten.

Protokoloa prestatzeko aztertu dituzten puntuak

- Euskal Herriatik Mundura, eta Mundutik Euskal Herrira...
- Hezkuntza sistema propioa eraikitzeko urratsak...
- Hezkuntza sistema propioa, euskaldunoi ukatutako eskubidea...
- Frantziar hezkuntza sistema: zaharrak berri...
- Espainiar hezkuntza sistemaren berrantolaketa...
- Inposaketarik ez! Euskal Herriak Bere Hezkuntza...

Protokoloaren konpromiso orokorrak

Protokolo honi atxikimendua adierazten diotenek honako konpromiso hauekin bat egiten dute:

1. Espainiar eta frantziar estatuak hezkuntza arloan burutzen ari diren

inposaketaren aurrean jarrera kritikoa izango dugu. Madrilen eta Parisen hartutako erabakien zein berauetatik eratorzen diren neurrien zilegitasun eza salatuko dugu.

2. Geure esku dagoen guztia egingo dugu, beti ere norberaren ahalmenen eta aukeren arabera, euskal ikastetxe eta fakultateetan espainiar hezkuntza berrantolaketa eraginkorra izan ez dadin, eta frantziar hezkuntza sistemak euskal nortasunaren eta euskararen aurka hartzen dituen neurriak bertan behera gera daitezten.

3. Geure eremutik hezkuntza sistema propioaren alde lan egiteko konpromisoa berresten dugu. Hor ditugu, zentzu honetan, heldu beharreko erronka garrantzitsuak: haur eskola euskalduna eta hezitzailearen eraketa, lanbide heziketaren euskalduntzea, euskal kurrikuluaren osaketa, murgiltze ereduen ezarpena, euskal unibertsitatearen sorrera edota tokian toki beharrezkotzat jotzen direnak.

Inposaketarik ez! Euskal Herriak bere hezkuntza

Goiko bi hauek izango dira Iruñean abenduaren 20an egingo den manifestaldiaren lemak.

Zer egin ikastetxeetan?

Ikastetxe bakoitzean nazio manifestaldia eta protokoloa lantzeaz arduratuko diren pertsonak behar dira; irakasleak, gurasoak zein ikasleak. Horretarako ditugun bitartekoak hauek dira:

o Agiria eta protokoloa. Gaia ikastetxeko hainbat gunetan lantzeko erabil daitezke: eskola kontseiluan edo baliokideetan, guraso elkarteko bilkuran, ikasle ordezkarien bileran, irakasleen klaustroan...

o Esku-orriak. Ahalik eta zabal-kunde handiena izatea komeni da.

o Kartelak. Ikastetxeko leku "estrategikoetan" ipintzeko.

Garrantzitsutzat jotzen dute manifestaldiaren eta protokoloaren inguruan batzar, hitzaldi edo eztabaidaren bat antolatzea ikastetxean. Bertan parte hartzeko ikastetxez kanpoko norbait joatea nahi izanez gero, antolatzaileekin harremanetan jartzea besterik ez dago.

Gastuak finantziatzeko asmoz, 5 eta 10 euroko bono laguntzak atera dira. Era horretan, ikastetxean lortutako dirua sartzeko, **Euskadiko Kutxako** honako kontu korrante haur ireki da:

3035 0086 61 0860027919

Informazio gehiago

Telefonoa: 696 200 570

E-mail: hezkuntzadeialdia@euskalherria.org

Kalitate Legearen aurrean, Sarean-ek orain arteko ildoari eutsiko dio

Sarean Elkartek XV. topaketak ospatu berri ditu, 110 lagun inguru bildu direlarik. Alde batetik, Kalitate Legeak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketa eta antolaketa arloetan izango dituen eraginak aztertu dituzte. Beste behin ere ezarri asmo diren aldaketak inola ere ez direla justifikatzen egiaztatu ondoren, Sarean-ek orain arte jorratutako lan ildo beretik jarraitzea erabaki du. Hori lortzeko, proposamen zehatzak egingo dizkio Hezkuntza Sailari datozen hilabeetan.

Bestetik, jardunaldietako lan nagusia eskoletan dauden pertsona baliabideen azterketa izan da. Eskolak hainbat alorretan egiten duen lana errekonozitu beharra azpimarratu dute, eta lan horretan jarraitzeko baliabide pertsonalak beharrezkoak direla. Horrela, beharrezkotzat jo dute IKTko (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) arduradunen formazioa ikastetxeko irakasle batek baino gehiagok jasotzea.

Eskola eta familiaren elkarlana aztertu ditu FERE-EIEFk



Azaroaren 14 eta 15ean ospatu ziren Gasteizen EIEF Euskadiko Irakas-kuntzarako Erljiosoan Federakuntzak antolatutako jardunaldiak. Aurtengo gaia hau izan da: **"Eskola eta familia: topaketa eta elkarlanerako gune baten bila"**.

Antolatzaileen asmoa gazteen heziketa prozesuan familiaren eta irakasle- en arteko laguntza mekanismoei buruzko hausnarketak proposatzea zen. Jardunaldiek hiru zati izan zituzten. Lehenengoan hezkuntzan familiak eta es-

kolak duten zeregina aztertu zen. Bigarrenean alde bien elkarlanerako gakoak eztabaidatu ziren. Eta hirugarren zatian aisialdia, araudiak eta ebanjelizazioa.

EIEFk Familia-Eskola-Ekintza-Konpartitua programa martxan jarria dauka. 848 familiek eta 170 irakaslek hartzen dute parte bertan eta helburua da gurasoek eta irakasleek, familiek eta eskolek, seme-alaben eta ikasleen inguruko heziketa gaien inguruan hausnartzea.

Psikomotrizitatearen hainbat alderdi aztertu dira UNEDen eskutik



Gasteizko Europa jauregia jendez beteta egon zen UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak antolatutako Psimotrizitate Praktikako VI. Jardunaldietan. Bernard Acouturierrek praktika psikomotorearen sorrera eta oraina aztertu zituen. Alberto Lasak psikomotrizitatearen eta psikiatriaren arteko lotura egin zuen. Eta Eneko Landaburuk osasunarekin lotu zuen psikomotrizitatea. Jardunaldi interesgarri eta emankorrak suertatu dira aurtan ere.

Liburuen xarma bilduma, bereziki irakasleentzako liburuak

Euskal Idazleen Elkarteak Liburuen xarma bilduma estreinatu du bi lan berri argitaratuz: *Zer egin dezake ikasle batek liburu batekin?* eta *Poesia lantzeko gida*. Bilduma hau bereziki irakasleentzako prestatutako lanez osatuko da. Lehen liburuak irakurzaletasuna pizteko giltzarriak eskaintzen ditu. Eta bigarrenak ikasgelan poesia lantzeko gakoak iradokitzen ditu. Liburuak moldatzen Juan Kruz Igerabide, J. M. Olaizola "Txiliku", Antton Irusta eta M^a Angeles Etxebarria aritu dira.

Kondaira.com, euskarazko lehendabiziko aldizkari elektronikoa

UEUko Historia Sailak **Kondaira.com** euskarazko lehendabiziko aldizkari elektronikoa jarri du edonoren eskura. Aldizkaria osorik euskaraz izango da, sei hilabetero agertuko da eta doa-koa izango da. Edukiari dagokionez, historia gaiak izango ditu jorragai. Bate-tik, Euskal Herriko zein mundu zabaleko edozein gai historiko jorratzen duten historia artikulua agertuko dira. Beste-tik, historiaren irakaskuntzan baliagarriak izan daitezkeen historia materialak (testuak eta mapak) ere eskuragarri jarriko dira. Eta azkenik, historialari eta historiazale euskaldunen arteko harremanak garatzeko eztabaida zerrenda bat ere jarriko da.

Internet bidezko joko didaktikoak

Klik eta Klik programa jarri du martxan Digital Vasca enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Udalen laguntzaz. 12 eta 15 urte bitarteko 500 ikaslek hartuko dute parte hasieran. Joko pedagogiko honekin bigauza lortu nahi dira: teknologia berrietan euskarak tokia baduela erakustea eta tresna pedagogikoak Internet bidez zabaltzea.

Gaztetxulok kazetaritza lehiaketa xelebrea antolatu du

Gaztetxulo Euskal Herriko gazteen hilabetekariak lehiaketa xelebrea, erakargarri eta orijinala antolatu du.

Duela hiru urte hasi zuen bere ibilbidea hilabetekari honek eta kazetaritza ausarta, frexkoa eta gaztea hedatu du Euskal Herri osoan zehar. Orain prestatu duen lehiaketa honen irakurleei eman nahi die protagonismoa.

Hona hemen **lehiaketaren oinarriak**:

- **Parte-hartzaileak**: 14 eta 30 urte bitarteko gazte guztiak.

- **Modalitateak**: albisteak eta argazkiak.

- **Nolako lanak?**: argazkiak egin edo albisteak idatzi behar dira. Baina betiko kazetaritza aspergarria alde batera utzi, eta **umoreak** izan behar du lanen oinarri. Ziur etxean baduzula argazki barregarriren bat. Edo, ez baduzu, argazkia egin dezakezu. Eta albisteekin, beste hainbeste: zuri edo zure lagunei gertatutako pasadizoren bat, herrian gertatutako zerbait... Albistea asmatu ere egin dezakezu. Irudimen apur bat baino ez da behar. Kontua barre egitea da.

Argazkiak zuri-beltzean edo koloreetan izan daitezke, eta neurria librea da.

Albisteak euskaraz idatzi behar dira -eskuz, idazmakinez edo ordenagailuan-, baina ezin dute orrialde bat baino luzeagoak izan.

- **Lanak nola aurkeztu?**: parte-hartzaileak bi modalitateetan lehiatu ahal izango dira. Lanak e-postaz (gaztetxulo@bagera.net) edo Gaztetxuloko egoitzara (Gaztetxulo, Xelebre Press lehiaketa, Pedro Egaña 2, 1. eskuina, 20006 Donostia) bidali behar dira.

- **Epea**: 2004ko urtarrilak 30. Parte-hartzaileek izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia jarri behar dituzte.



- **Epaimahaia eta epaia**: epaimahaian honako hauek egongo dira: Kike Amonarriz umoregilea, Jasone Osoro idazlea, Ander Gillenea argazkilaria, Juan Kruz Lakasta Euskalerrira irratiko kazetaria, Eli Gorostegi Gaztetxuloko argazkilaria eta Martxelo Sotes Sorginen Laratza saioko showman-a.

Saritutako lanak 2004ko martxo-ko Gaztetxulon jakinaraziko dira.

- **Sariak**: bi modalitateetako irabazleei home cinema bana oparituko zaie. Gainontzeko parte-hartzaileen artean hainbat sari zozketatuko dira: euskal selekzioaren bideo jokoak; Gaztetxuloren tangak, gantzontziloak eta kamixetak; *Argiaren* mahai-jokoak; *Gartxot* komiki liburuak; *SMS: segapotoen mezu sekretuak* liburuxkaren ehundik gora ale...

Informazio gehiagorako:

Gaztetxulo

Tel.: 943 455 138 / 458 408

E-posta: gaztetxulo@bagera.net

Muga guztien gainera ...euskaraz!

Izurako Oztibarre ikastola Lau alokutibo formatan jarduten duen eskola bakarra

Mailis ERROTABEHERE



Toka, noka, zuka eta xuka. Adituzaren lau alokutibo formatan mintzo dira Nafarroa Beherean, Oztibarre ibarrean. Euskararen harribitxi bat da hori, bizi-bizirik mantendu dena. Ikastolak ondre horretan oinarritu behar duela oso argi dute Izuran. Hau da Euskal Herriko ikastola bakarra, gela bakoiko jarduna alokutibo formatan horietan egiten dena.

Oztibarre ikastolaren beste ezaugarria txiki izatearena da. Adin desberdinetako haurrak gela berean elkartzen dira, eta horrek ikas prozesua aberastu egiten du.

Eskola txikia da Oztibarre. 1991 urtean sortu zen, jabego pribatu batean, Bunuze herrian hain zuzen. Zazpi haur ziren sorreran. Bi urtera Donaixtira eraman zuten ikastola, beste jabego pribatu

Xantiana COUCHINAVE



tu bate-ra, eta handik Izura herrira ekarri zuten azkenik. Ama Eskolaz gain, Lehen Maila ere eskaintzen 1999 urtean hasi ziren. Haurrak Oztibarre ibarretik etortzen dira, eta baita Landibarretik ere. Lehen Maila bukatuta, ikastolako haurrok Donaixtiko kolegiara joaten dira.

Gaur 3 urtetik hasi eta 11 urtera bitarteko 34 haur dituzte. Bi ikasgela osatzen dituzte; batean Ama Eskolakoak daude eta bestean Lehen Mailakoak. Gelan adin desberdinetako haurrak izateak asko aberasten du ikas prozesua: txikiagoek beti handienei jarraitu nahi diete, jakin-mina dute handiak lantzen ari direna euren ere ikasteko. Handiak, berriaz, txikiak ar-

Martta LAKO
ikastolaren sortzailea




Xole AIRE



du-radun sentitzen dira, eredu. Gutxiago dakitenei irakatsiz asko ikasten dute.

Toka, noka, zuka eta xuka

Forma bakoitza zertan bereizten den azalduko dugu gainera. Toka eta noka Hegoaldean ere erabiltzen diren formak dira, toka mutilei egiten zaie eta noka neskei. Xuka eta zuka bereizteko adibide bat jarriko dugu. Euskara baituan edo neutroan, "barnean gira" esango genukena, xuka "barnean gitxu" esaten da, eta zuka "barnean gitzu". Edo "etxea polita da" esateko, zuka "etxea



polita duzu” esango litzateke.

Zu alokutiboan gaur jende gutxi mintzo da, aitaxi eta amatxiak gehienik, eta apaizari edo pertsona ezezagunen bati zuzentzen direnean. Hala ere, zu alokutiboa ez omen da Hegoaldeko “berorrika” forma ere. Arrunt berezia da. Orain bi belaunaldi, Oztibarre ibarrean zuka mintzatzen zirenean gehien bat, xuka ia batere ez. Aldiz, Donibane Gara inguruan xuka egiten zen asko. Beraz, eskualdeen arabera bazen diferentziarik. Egun xuka mintzatzen dira gehienak, eta gazteak kasik ez dira inoiz zu alokutiboan mintzatzen. Bi belaunalditan gauzak erabat aldatu dira, beraz. Gaurko haurrek zu alokutiboa ez badute ikastolan ikasten, ez dute atxikiko.

Euskara batuan edo neutroan ez dute sekula hitz egiten bertako haurrek. Haurrek xuka, toka eta noka hitz egiten dute. Irakasleek diotenez, horretan eragin handia du haurrek aitaxi eta amatxiekin duten harremanak. Etxe berean bizi ohi dira, eta belaunaldien arteko transmisioa segurtatzen da. Nahiz euskara batua edo neutroa ez duten sekula erabiltzen, ezagutu egiten dute, nonhaitik jasotzen baitute neutroa (telebistatik, liburuetatik...).



Herri bertako hizkera, ikas-tolako hizkera

Martta da lau irakasletan Izura bertakoa, eta ikastolaren sorreratik dagoe-na. Marttak lehen egunetik xuka egin zien haurrei. Hala irten ziztaion naturalki, ez ziztaion neutroan egiterik burutik pasa ere egin. Landibarreko haurrak etortzen hasi ziren gero ikastolara, eta haiek toka eta noka egiten zuten aise.



Marttak beharra sentitu zuen berak ere toka eta noka ikastekoa, Landibarreko haurrek zekarten aberastasunari lekua egin behar baitziztaion gelan. Gero emeki-emeki, zu alokutiboa ere lantzen hasi ziren.

Harrigarria omen da haurrek zeinen azkar ikasten dituzten alokutibo formak. Ikasgelan lehenik xuka mintzatzen hasten dira beti, etxetik dakartena horixe baita. Ama Eskolan toka eta noka ikasten dute eta behin forma berriok menperatzen dituztenean, orduan hasten dira zuka. Orain arte zuka ikastea Lehen Mailarako utzi izan dute, baina aurren Ama Eskolan jada hasi dira zuka, esperientziaz ikusi baitute txiki-txikitatik gai direla lau formak lantzeko.

Irakasle bakoitzak forma alokutibo bat

Lau alokutibo formak ikasteko modurik onena, ikastolan eguneroko bizitzan erabiltzea da. Hori oso kontzienteki pentsatua dute Oztibarren. Irakasle bakoitzak alokutibo forma bat hautatu du, eta ikasleei hasieratik azaltzen die berarekin zein formatan hitz egitea nahi duen. Hala, Marttak zuka hitz egiten die beti. Gainerako irakasleek, talde osoari zuzentzen direnean xuka egiten dute, eta haur bakoitzarekin banaka jardutean toka edo noka. Haurrek euren artean toka eta noka jarduten dute. Beraz, ikasleek badute alokutibo forma bakoitza norekin erabili.

Proiektu hau gauzatzeko, irakasle-

ek alokutibo formak ikasi behar izan dituzte. Martta soilik da Oztibarre ibarrekoa. Xole urepeldarra da, Mailis lapurtarra, Uztaritzekoa, eta Xantia Zuberoako Urrüxtoi-Larrabilekoa. Ikastolara etorri zirenean ez zekiten forma alokutibo horiek erabiltzen. Proiektuan sinesten dutelako ikasi behar izan dute, eta diotenez, ez da batere erraza; haurrek fiteago ikasten omen dute helduek baino. Irakasleek argi esaten diete haurrei ez dakitela eurek bezala mintzatzen, eta mesedez irakasteko. Haurrek jarrera bikaina omen dute, eta zuzenketak eginez irakasleak ikasiz doaz.





Hutsak egiteari beldurra kendu behar izan diote, beraz, irakasleek, eta Xolek azaldu digunez zailena horixe da, zeure burua hala entzutea, zeurea ez den mintzaira batean. Irakasleentzat, aditz alokutiboak ikasteaz gain, oso garrantzitsua da Izura bertan erabiltzen diren hitz bereziak ikasi eta erabiltzea ere. Izura aberatsa baita, aditz mailan partikulariki, baina baita hiztegi mailan ere.

Bistan da irakasle denek duten inplikazioa. Horixe omen da proiektu honen sekretu nagusia: ikastolako irakasle eta langileak talde bat izatea, eta denek egitea ahalegina.

Idatziaren arazoa

Oztibarre ikastolan 1999an hasi ziren Lehen Maila ere ematen. Orduan hasi ziren arazoak. Lehen Mailan haurrek idazketa lantzen hasi beharko zuten, eta zein formatan idatzi erabaki beharra zuten irakasleek. Euskara batua izanagatik ofizialki onartzen dena idatzirako, euren ondasuna lantzea ere oso garrantzitsua ikusten zuten. Azkenik, erabaki zuten ahulen zegoen forma hautatu behar zela idatzian ere lantzeko, gal ez zedin. Haurrek neutroa naturalki ikasten dute, eta zu alokutiboa dagoenez ahulen, horixe hautatu zuten idatzirako. Gurasoei ere oharrak zuka bidaltzen dizkiete.

Idatzirako zuka forma hautatzeak, zailtasunak zekartzan: batetik, ez zegoen testurik alokutiboan idatzirik. Material guztia irakasleek sortu behar izan dute. Bestetik, orain arte ez dago arautua nola idatzi behar den alokutiboan. Irakasleek ikertu behar izan dute hori. Aditz taulak osatzeko lanean ari dira. Taulak, aditz neutro bakoitzaren ondoren aditz hori lau alokutibo formatan nola esan eta idatziko litzatekeen bilduko

du. Alegia, “euskaltzain ttipien” lan erraldoia egiten dihardutela. Aditz taulak osatzeko, Martta eta Xole hiru herri-tako hiru pertsona adinduekin biltzen dira asteen behin: Izuran Xantreiteiko Eñautekin, Jutsin Arlaneko Gaxuxarekin eta Arhantsusin Larrondoko Alexandrerekin. Hiruok bere-berean mantendu dituzte forma alokutiboak, inongo eraldaketarik gabe, ez baitute euskara neutroaren eraginik izan. Nola ahoskatzen duten erreparatzen diete bereziki. Behin aditz taulak osatzean Euskaltzaindiari erakusteko asmoa dute, ikusteko ofizialki zer den onargarri.

Esparru berrietan erabiltzea erronka

Ikastola barruan oso ongi funtzionatzen du esperientzia honek. Aurrera begirako erronka alokutiboan mintzatzeko ohitura hori beste testuinguruetara eramatea da. Izan ere, ikastolara kanpoko norbait bisitan datorrenean, nahiz pertsona horrek xuka edo tokanoka jarduteko ohitura izan, automati-

koki neutroan mintzatzen omen dira, bai haurrak eta baita bisitaria ere, euren “txipa” baita eskolako hizkuntza, ofiziala, neutroa dela. Mentalitateetan ere bada lan bat egiteko, beraz, ikus dezaten eskolan etxean bezala mintzatzea aberastasun bat dela.

Gauza bera gertatzen da haurrak Donaixtikoko kolegiara joaten direnean; hango haurrekin ez dute toka eta noka jarduten, ezta xuka ere. Neutroan zuzentzen dira jende berriari. Kezka hori medio, Oztibarreko irakasleek iaz bizpahiru bilkura egin zituzten Donaixtikoko irakasleekin, euren proiektua aurkezteko eta ikusteko kolegiokoek zer pentsatzen zuten. Ba omen dute hor bide bat egiteko. Bestetik, kolegioan euskalkien arazoa ere badute, irakasle asko beste eskualdeetatik etortzen baitira. Erabaki nahian omen dabilta, ea irakasle bakoitzak bere euskalkian mintzatu behar duen, denek bertako euskalkian egin behar duten edo neutroan zuzendu behar zaizkien ikasleei. Oztibarreko irakasleek argi dute ez direla nor erabaki hori hartzeko, eurak ez baitira kolegioan. Dena den, euren ikastolako filosofia zein den ez dute zailentzarik: haur bakoitzak etxetik dakarren aberastasuna atxikitzea ikastolan, etxetik dakarten hori hartzea eta erabiltzea, alde zuzenetik teorikoki finkatu beharrean zer hizkera behar den hartu eskolarako. •




Zarena zarela ere, hauxe duzu dibertimendurik aproposena:

Lauburua

Zuhurtzia, zortea, sena eta abilezia uztartzen dituen mahai-jolasa.

SALMENTA PREZIOA


35€



 ARGIA

ARGIAko 943 37 15 45 zenbakian,
denda@argia.com helbidean edo
ohiko salmenta puntuetan.

Euskaraz jolasteko bideoak



...eta beste hainbat material
Durangon salgai